



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**CELSO RODRÍGUEZ PADRÓN, BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO IDAZKARI NAGUSIA,**

**ZIURTATZEN DUT: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO OSOKO BILKURAK, DATA EGUNEKO BERE BILERAN, EMAKUMEAN GAUZATUTAKO INDARKERIAREN AURKA BABESA EMATEKO NEURRIEN OSOKO LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUAREN TXOSTENA ONARTU DUELA, BERAU, HITZETZ HITZ ONDORENGOA IZANIK:**

#### **AURKIBIDEA**

- I. AURREKARIAK**
- II. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN AHALMEN TXOSTENA**
- III. LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUKO EGITURA**
- IV. PROIEKTUAREN GAINEAN HAUSNARKETA OROKORRAK**

- 1. Legegintza-aurrekariak, legearen izaera integrala eta arazoaren judizializazioa.
- 2. Osoko legearen babes esparruari buruz: gizonak, adingabeak eta adinduak kanpoan uztea.
  - a) Indarkeria testu informatuaren arabera
  - b) Indarkeria eta menpekotasun harremanak: etxeko indarkeria
- 3. Aurreproiektua eta "diskriminazio positiboa"
  - a) Zer da diskriminazio positiboa?
  - b) Diskriminazio positiboaren berezko esparrua.
  - c) Diskriminazio positiboaren desegokitasuna zigor-arloan eta judizialean.

#### **V. PROPOSATUTAKO NEURRI ZEHATZEN AZTERKETA**

- 1. Emakumean gauzatutako indarkeria kontzeptuaren gainean



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

- a) Kontzeptuaren garrantzia.
- b) Definizioan elementu intentzionalaren sarrera desegokia.
- c) Aldez aurretik jakinaraztea merezi duten efektu desitxuratuak.
- d) Iradokitzen diren definizioak

### 2. Zigor Kodeko erreformaren gainean

- a) Legegintza-aurrekariak
- b) Aurreproiektuaren berritasunak
- c) Emakumeen aurkako indarkeria arloan, zigor-arloko babesaren zeregina
- d) Emakumeari buruzko mehatxu eta bortxaketa arinen tipifikazioa delitu bezala
- e) Lesio-delituaren larriagotzea

### 3. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren sorketaren gainean

### 4. Eskumen-banaketa arauen gainean

- a) Zigor-arloko eskumenen ematea
- b) Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaileari *vis atractiva* bitartez ematen zaion eskumen zibilen atribuzioa
- c) Eskumen objektiboaren bat-bateko galeraren gainean: epaile arrunta izateko eskubidea.
- d) Judizio azkarrak, guardia Instrukzio-epaileak eta Indarkeriaren arloko epaileak
- e) Biktimaren helbidea kontuan hartuz, zigor-arloko lurraldearen arabera eskumena
- f) Loturagatik ematen den eskumena
- g) Babes-aginduko Jarraipen Batzordeak prestatutako protokoloak
- h) Publizitate iraingarria eta Indarkeriaren arloko epailearen eskumena

### 5. Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Gobernuaren Ordezkaritza prozesuko legitimazioaren gainean



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

6. Fiskaltzaren funtzioen gainean

## **VI. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO BEHATOKI NAZIONALA ETA EPAILE ETA MAGISTRATUEN PRESTAKUNTZA**

1. Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Behatoki Nazionala
2. Epaille eta Magistratuen prestakuntza

## **VII. PROPOSATUTAKO BESTE NEURRI BATZUEN ANALISI LABURRA**

1. Sentsibilizazio neurriak: publizitatea eta komunikabideak
2. Gizarte laguntza eta doako laguntza juridikoaren gainean
  - a) Gizarte zerbitzu zehatzen zigor-arloko legitimazioa
  - b) Doako laguntza juridikoa
3. Lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzaren Prestazioak.
4. Indarkeriaren objektu diren emakume Funtzionario publikoen eskubideak

## **VIII. ONDORIOAK**

### **I. AURREKARIAK**

Ekainak 7ko datarekin, emakumean gauzatutako indarkeriaren aurkako neurrien osoko Lege Organikoaren Aurreproiektu testuak sarrera izan zuen, berau, Justizia Ministro Jaun Gorenak aurreko ekainak 4ean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi honi bihaldua izan zen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 108. artikulua adierazi bezala.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Txosten honen egiterako Txostengile bezala **On Montserrat Comas d'Argemir I Cendra andre gorena** hautatua izanik, txosten bera ez zen onartua izan 2004ko ekainak 15eko Ikerketa eta Txosten Batzordearen bileran eta Batzordeak, Txostengile berri baten hautapena hitzartu zuen, bera **On José Luis Requero Ibáñez jaun gorena** izanik, eta baita, Osoko Bilkurara, Estatuko Gobernuari luzapen eskaera aurkeztea, txostenaren igorpen hau 108.2 artikulua aipatzen duen premiazko izapidearen bitartez eskuratua izandako guztietan eta Aurreproiektu-testuaren harreratik zenbatutako hamabost eguneko epe laburrean txostena bideratua izateko ezintasunaren aurrean.

BJKNko Osoko Bilkurak, ekainak 17 eguneko bere osoko bilkuran, ohiz kanpoko Osoko Bilkura berri bat iragartzea erabaki zuen, Estatuko Gobernuak eskatutako hasiera bateko hamabost eguneko epearen barruan txostena bideratzeko helburuz.

2004ko ekainak 21 egunean ospatutako Ikerketa Batzordean, Txostengileak prestatutako txostena onartu zen eta behin betiko onarpenerako Osoko Bilkurara bere igorpena erabaki baita.

## II.

### **BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN AHALMEN TXOSTENA**

1.-Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko jardura informatzailea Botere Judizialaren Lege Organikoaren 108. artikuluan arautzen da, funtsean, legeen Aurreproiektuei eta Estatuko eta Autonomia Erkidegoen



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

xedapenei dagokienez, guztiz edo partzialki izanik eta 108.1 Lege horren gainerako artikuluan aipatzen diren beste materia batzuen artean *“arau prozesalak edo Auzitegi arrunten aurrean Oinarrizko Eskubideen jardutean aspektu juridiko-konstituzionalen babesean eragina dutenak eta Epaitegi eta Auzitegien eraketan, antolaketan, funtzionamenduan eta gobernuan beste edozein eragin mota dutenak ”* nahiz eta *“Zigor-arloko legeak eta Erregimen Penitentiarioari buruzko arauak”*.

Hala eta guztiz ere, Kontseiluko txostenaren ahalgoa zentzu zabalean ulertua izan da. Horrela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia bere txostenaren ahalgoaren esparrua eremu hertsia baten bereizketatik hasita mugatzen joan da, alde batetik, aipatutako Botere Judizialaren Lege Organikoaren 108.1 artikuluan zehaztutako esparru materialarekin hitzez hitz bat datorrena, eta beste alde batetik, Botere Judizialaren gobernu konstituzional organu bezala, Kontseiluaren egoeratik eratortzen den eremu zabalago bat. Hori dela eta, eta lehen esparruaren barruan, igorri beharreko txostena, hasiera batean, aipatutako arauetan aurreikusitako gaiei buruzkoa izango da, modu orokor batean behintzat, aipatutako Botere Judizialaren Lege Organikoaren 108. artikuluan sartu ez diren gai guztien Proiektuaren edukiaren gainean hausnarketa azalpena baztertuz. Hedatua izan den esparru horren gainean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, funtsezko eskubide eta askatasunak eragintzen dituzten Txosteneko aspektuei buruz ere bere iritzia adierazi beharra dauka, Konstituzioaren 53. artikuluen xedapen zehatzaz daukaten lehentasunezko maila eta berehalako eraginkortasuna dela eta. Puntu honetan, Konstituzio Auzitegiaren erabakietan bereziki oinarritu behar da, Konstituzioaren interpretatzaile gorena bezala eta edozein eratako prozesuetan hartutako erabakiak arauen



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eta irizpide konstituzionalen interpretaziorako iturri direktu bezala, epaile eta auzitegi guztiei lotua.

Aurrekoaz gain, organo konstituzionalen arteko lankidetzaren irizpidez bat, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia beste hausnarketa batzuk egiteko aukera azaltzen egon da bere txostenetan, bai legegintzako teknika huts edo terminologikoen gainean, testu arauemaileen zuzenketa hobetzea lortzeko asmoarekin, bai jurisdikzio-prozesuen gainean duen aplikagarritasun eta eraginkortasuna bezala, beraz, jurisdikzio-organoak dira dagozkien arauak ondoren praktikan jarri behar dituztenak.

2.-Txostenaren eraginpean dagoen Aurreproiektuak, Epaitegi eta Auzitegien antolaketa eta funtzionamenduan modu zuzen batean eragina duten xedapenak ditu, oinarrizko eskubideen jardutean Auzitegi arruntan aurreko babes arau prozesal eta funtsezko arauetan eragina duten aspektu juridiko-konstituzionaletan eta zigor-arloko legeetan, Botere Judizialaren Lege Organikoak, Epaile eta Auzitegien gobernu-Organoren txostenaren objektu izan beharko lukeela uste duen berezko esparruaren aurrean aurkitzen garelarik.

Aurreproiektuaren aukera politikoari buruzko edozein hausnarketa alde batera utzita, Kontseilu honek egotzitako arauaren Konstituziora egokitzeke egitateari buruz iritzia eman beharko du, arau berriak, antolaketa judizialean duen eraginari buruz eta egotzitako testu arauemailearen ordena-teknikoaren beste aspektu batzuk bazterrean utzi gabe.



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

### III.

#### LEGE ORGANIKOAREN AURREPROIEKTUKO EGITURA

Igorritako Aurreproiektuak, Zioen Azalpen bat, Aurre-titulu bat, bost Titulu, zortzi Xedapen Gehigarri, bi Iragankor, Indargabetzaile bat eta hamasei Azken Xedapen ditu.

Zioen Azalpena, emakumeari gauzatutako indarkeriaren gertakaria eta honen aurkako borrokan botere publikoen parte-hartzearen beharra aztertzen dituzten hiru ataletan banatzen da, askatasun, berdintasun eta diskriminaziorik ez izateko eskubideak benetako eta eraginkorrak egiteko adina neurri hartuz. Guzti hau, ikuspuntu orokor batetik, nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezala. Horregatik aspektu prebentibo, hezitzaile, sozialak eta biktimei laguntza ematen diotena eta ondorengo arretakoak izan dezaten azpimarratzen da, zigor-arlo eta babes judizialeko aspektuak alde batera utzi gabe. III. atalean Legearen edukia laburbiltzen da, Tituluz Titulu eta txosten honek garrantzia ematen dionaren artean, emakumeen aurka burututako delitu zehatzen areagotzea aukeratzen da, prozesuak azkarrak eta laburrak izan behar direla azpimarratzen da, aspektu zibil eta zigor-arlokoak uztartuz eta emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien sorketa, zigor-arlo izaeraren barruan espezializazio eredu bat bezala hartuz.

Aurre-Titulua, dituen bi artikuluetan, Legearen asmoaz eta berau iradokitzen duten helburu eta oinarrietaz arduratzen da.

Igo Tituluak sentsibilizazio neurriak arautzen ditu, dituen hiru



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Kapituetan hezkuntza-esparrua, publizitate eta komunikabide esparrua eta osasun-esparrua landuz.

II. Tituluak indarkeriaren biktima izan diren emakumeen eskubideak biltzen ditu, horrela, Igo Kapituluak biktimen eskubideen bermetasuna, informazio eskubidea, osoko gizarte laguntza eta laguntza juridikoa izateko eskubidea arautzen da. II. Kapituluak lan eta gizarte segurantza eskubideak, Espainiako Erresuma Planaren eremuko egitarau zehatz bat eta emakumeak diren langileetan emandako indarkeria egoeren egiaztapena arautzen du. III. Kapituluak emakumeak diren funtzionario publikoen eskubideetaz arduratzen da, horien artean, lekualdaketa eta borondatezko eszedentzia eskubidea, lan-denbora egokitzeko eskubidea eta emakumeak diren funtzionario publikoetan emandako indarkeria egoeren egiaztapena. Eta azkenik, IV. Kapituluak eskubide ekonomikoak arautzen ditu, horien artean gizarte-laguntzak eta etxebizitza eskuratzeko lehentasuna.

III. Titulua erakundeei buruzko babesari dagokiona da eta honetan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Gobernu Ordezkaritzaren sorketa aurreikusten da eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Behatoki Nazionala. Era berean, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoetan unitate berezien sorketa eta Udaltzaingoen lankidentza arloan eskumenak dituzten administrazio ezberdinen arteko lankidentza planak antolatuz.

IV. Tituluak zigor-arloko babesa arautzen du, Gobernura, Zigor Kodeko 148.4, 171.4 eta 172.2 artikuluen aplikazioari buruzko eta urteroko periodikotasuneko txosten bat igortzeko, emakumearen aurkako





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

indarkeriaren arloko Behatoki Nazionalaren betebeharra nabarmenduz, Zigor Kodeko 171 eta 172. artikuluetan erreformak sartzen diren denbora berdinean eta delitu hauengatik barne-kondenatuentzat programa zehatzen egitea aurreikusten da.

V.Titulua babes judizialaz arduratzen da eta hurrengo eduki hau duten bost Kapituluatan banatzen da: emakumearen aurkako indarkeriaren arloko Epaitegien gainean (lurralde antolaketa, eskumena, zigor-arloko errekurtsioak, arlo zibileko errekurtsioak, hezkuntza, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien hasierako itxura); arau prozesal zibilak (emakumearen aurka indarkeria egoerak ematen direnean eskumen objektiboaren galera); zigor-arloko arau prozesalak (lurralde-eskumena, lotura eskumena); biktimen babes eta segurtasunerako neurri judizialak (xedapen orokorrak, babes agindua edo ordena, datu babesa eta publizitate mugaketak, etxebizitzatik irtetzeko neurriak, komunikazioen urruntze edo galarazpena, guraso-ahalaren etenaldia edo adingabeen jagoletza, bisita erregimen neurriak, armak eduki, eraman eta erabiltzeko eskubide neurriak, neurriak hartzeko bermetasuna eta kautelazko neurrien mantenimendua), eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Fiskalaren neurri judizialak.

Xedapen Gehigarriek alarguntza-pentsioa, jarduketa protokoloa, Espetxe Erregelamenduaren aldaketa, Legearen aplikazioaren ebaluazioa, erreferentziak eta gaikuntza arauemailea, osozko gizarte laguntzaren funtzionamendurako fondo zuzkidurak eta etxebizitza arloko hitzarmenak arautzen dituzte.

Xedapen Iragankorrek neurrien aplikazioa eta emakumeen aurkako



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

indarkeriaren arloarekin erlazionatutako zigor-arloko prozesu eta prozesu zibilen gainean gaur egun ezagutzen duten organoen eskumena arautzen dute. Xedapen Indargabetzaile Bakarrak, bien bitartean, Legeak ezarritakoaren aurka doazten maila berdin edo txikiagoko arauak indargabetzen du.

Azkenik, Azken Xedapenek emakumeen aurkako indarkeriaren arloko neurrien Osoko Lege Organikoagatik ukituak izango diren lege ezberdinen arauak aldatzen dituzte, ala nola, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoa, Hezkuntzaren Kalitateko Lege Organikoa, Publizitateko Lege Orokorra, Langileen Estatutua, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurrien Legea, Botere Judizialaren Lege Organikoa, Fiskaltzako Estatutu Organikoa, Zigor Kodea, Planta eta Demarkazio Judizialaren Legea eta Prozedura Kriminalaren Legea. Azken lau Azken Xedapenak Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/73/CE Zuzentarauaren transposizioaz, habilitazio kompetentzialaz, Legearen izaeraz eta bere indarrean sartzeaz eta erregelamenduzko garapenez arduratzen da.

Oroitzatxosten edo Memoria ekonomiko bat Lan eta Gizarte Gaien Ministerioen, Hezkuntza eta Zientzi Ministerioen, Justizia Ministerioaren eta Barne Arazoetako Ministerioaren eskumenak eragintzen dituzten neurrien kostuaren kalkuluekin batera doa. Justizia Ministerioa eragintzen duten neurrien kostuaren kalkuluari buruzkoa den atalean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien planta aztertzen da, hala nola, Epaitegi berrien sorrerarako balioesten diren kostuak eta iadanik existitzen direnen



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

aldaketa kostuak baita, Doako Laguntza Juridikoaren hedapenak suposatzen duen eragin ekonomikoa, Etxeko Indarkeriaren aurkako Ordezkarri Fiskalaren irudiaren sorrera, zeinuen lengoaira Itzulpen Zerbitzua eta Indarkeriaren arloko Osoko Auzitegi Balorazio Unitateen sorrerak suposatzen dutena.

### IV.

#### PROIEKTUAREN GAINEAN HAUSNARKETA OROKORRAK

##### **1. Legegintza-aurrekariak, legearen izaera integrala eta arazoaren judizializazioa.**

Proiektatutako Lege Organikoarekin, legezko erreforma prozesu batek jarraitzen du, bai estatu-mailan baita autonomia mailan ere. Honen helburua, Konstituzioko 9.2 artikuluko emakumearen berdintasuna eragintzeko, gure antolamendu juridikoa hobetzea da, eta bereziki, ez etxeko indarkeriaren aurka baizik eta emakumearen indarkeriaren aurka, prebentzio, babes eta zigor eremua ahalik eta handiena izatea saiatzea. Gainera, testu informatuaren Zioen Azalpenak ezartzen duen bezala, Espainiak nazioarteko tresna ezberdinek marratutako linea jarraitzen du; “*emakumean gauzatutako indarkeriari erantzun orokor bat emateko*” egin direnak, dio espresuki.

Adibide gisa eta Kontseilu honek interesgarrien duen esparruan, 1989ko maiatzaren 12an Senatuaren Aldizkari Ofizialean *Arartekoarekin eta tratu txarrak izan dituen emakumearen ikerketaren Giza Eskubideetaz*



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

*arduratutako Erlazioen Komisioaren Txostena* argitaratu zenetik eta, egun batzuk geroago, Zigor Kodeko erreformako 3/89 LOa atera zenetik, lehen mailakoa den gizarte arazo bati aurre egiteko legezko tresnen eskasiaren kontzientzia handitu dela esan daiteke.

Era honetan, legegilearen esfortzua etxe eremuan babes judiziala bermatzeko gure antolaketaren hobekuntzarako konstantea izan da. Nahikoa da joan zen urtean erreforma garrantzitsuak egin zirela esatea, hala nola, *hiritarren segurtasun, etxeko indarkeria eta atzerritarren gizarteratze gaietan neurri zehatzen* Irailak 29ko 11/2003 Lege Organikoaren kasua; azaroak 25eko 15/2003 Lege Organikoa, *zeinen ondorioz Zigor Kodeko azaroak 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen den* edo *etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Ordenaren erregulatzaileraren* uztailak 31ko 27/2003 Legearen kasua.

Hertsiki judizial esparrutik kanpo, iada laguntza edo prestazio aspektuei helduz, hurrengo Lege hauek aipatu daitezke: abenduak 30eko 53/2002 Legea eta (enplegua bultzatzearen gainean) *neurri fiskal, administratibo eta lan-arloari buruzkoa den* abenduak 30eko 62/2003ko Legea; azaroak 20ko 14/2003 Lege Organikoa, *Espanian, atzerritarren eskubide eta askatasun eta gizarteratzearen gainean* urtarrilak 11ko 4/2000 Lege organikoaren *Erreformari buruzkoa eta* abenduak 22ko 8/2000 Lege Organikoak aldatua; *Toki Araubidearen Oinarriak Erregulatzen dituen* apirilak 2ko 7/1985 Legea; *Herri-administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio-prozedura Erkidetaren* azaroak 26ko 30/1992 Legea eta *Lehiaketa Desleialeko* urtarrilak 20eko 3/1991 Legea. *Elkarte-eskubidea erregulatzen duen* martxoak 22ko 1/2002 Lege Organikoa ere aipatzea dago, emakumearen



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

sustapena eta abar helburutzat duten elkarteak, onura publikotzat jotzen dituelako.

Hala eta guztiz ere, eremu autonomikoan, Komunitate batzuk, beraien eskumen esparruaren barruan, iadanik gaiari buruzko lege-ekimen integralak hartu dituzte. Hauek dira adibide batzuk: Kanariako *genero-indarkeriaren aurkako emakumearen osoko babes eta prebentziozko* apirilak 8ko 16/2003 Legea. Honetara bateratu daiteke *Valentziako Generalitatearen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako den* apirilak 2ko 9/2003 Legea; *Gaztela eta Leoneko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Aukerak izateko* martxoak 3ko 1/2003 Legea; *Gaztela eta Leoneko Haurren Sustapen, Arreta eta Babeserako den* uztailak 25eko 14/2002ko Legea, Haurren Osoko Babesari buruzkoa; *Gaztela eta Leoneko Gazteriako* uztailak 10eko 11/2002 Legea, gazteriaren osoko babesari buruzkoa edo uztailak 2ko 12/2001 Legea, *Aragonen haur eta nerabearen gainean*.

Arau multzo honetatik, 27/2003 Legea garrantzitsua da bereziki, gaian osotasun irizpide bat finkaturik zuelako. Honela dio bere Zioen Azalpenak: *“Laburbilduz, guztizko eta koordinatutako ekintza bat beharrezkoa da, zeinek erasotzaileari buruzko kautelazko zigor neurriak bateratuko dituen, hau da, indarkeriazko ekintza berriak egitea eragoztera zuzendutakoak, eta izaera zibil eta soziala duten eta etxeko indarkeriaren biktimen babesgabetasuna saihesten dutenak eta ahulezi izaera berezia dutenei erantzuna ematen dioten neurri babestzaileak”*. Arau honetara itzuli beharra egongo da testu informatuarekin erlazioan jartzeko.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Laburbilduz, esan daiteke, gure antolaketa juridikoa etxeko edo familiako bizitzaren arautegia bezala izendatu daitekeen alor guzti haiei ekin diela, emakumearen berdintasunerako aurrerapena, haurren babes eta bereziki, eraso kriminalen aurrean babes judiziala azpimarratuz.

Era honetan berez babes osoko arau ikuspegi bat dago -27/2003 Legeak hasi zuena- testu informatuagatik arauketa-gaian eragina duten aspektu guztiei heltzen dioten arau bilduma bezala ulertua, berau, emakumeari buruzko politika gehiena arau bakar batera daraman eta guztizko erregulazioa egiten duen testua izanik. **Zentzu honetan, osoko Legeak antolaketa juridikoaren adar ezberdinetan izatedun arautegi baten balio “kodifikatzailea” izan beharko luke; hori bai, azalduko den bezala, “odoko” bokazio moldaketa batekin parekatzetik urrun, informatutako testuarekin gai berdin baten gainean erregimen prozesal ezberdinak ugaritzen dira, nolabaiteko gainezartze eta interferentzia arriskuaz.**

Honekin bat, gure ahalaren txosten esparruan, lege berriak izatedun arautegi bildumari zer nolako berritasunak eskaintzen dioen baloratu beharra dago. hala eta guztiz ere, aldez aurreko gai bezala legearen osoko *bokazioari* dagokionez adierazi beharra dago, dituen 50 artikuluetatik, 22 tutoretza judizialari buruz jarduten direla. Fiskaltzari, egia esan, manu bat bakarrik eskaintzen zaio (funtsez 50. artikulua); berdin gertatzen da Segurtasun Indar eta Kidegoekin (26. artikulua). Honek zera esan nahi du: neurri batean, Estatuaren erantzuna ez etxeko indarkeriaren aurrean baizik eta emakumearen indarkeriaren aurka egiteari buruz, epaile eta auzitegien kontu dagoela.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Aukera honek epaileen aurrean eta hauengatik ebatzi daitekeena baino giza-arazo askoz ezberdinago baten judizializazioa ekartzen du. Aipatu beharra dago parte-hartze judiziala beti dela azkena eta epaileak iadanik arazo bat dagoenean esku-hartzen duela -ez kasu gutxitan, urteak joan ahala garatu dena. Hau dela eta, konponbide printzipala epailean dagoela pentsatzea akats bat da eta bereziki zigor-arloko esparruan.

Idea honen aurrean, azpimarratu beharra dago epailearen betebeharra ez dela giza-arazoak konpontzea, baizik eta Estatuaren botere jurisdikzionala erabiliz, biktima babestea eta Zuzenbidez, bere errugabetasun-presuntzioaz, delitu edo falta batengatik zigor-arloko akzioa gauzatzen duenagatik salatua izan dena epaitzea. Epaileak, akzio hori gauzatu duenak argudiatutakoaren eta frogatutakoaren arabera zigortu edo errugabetzat jotzen du. Horregatik, Fiskaltza eta Segurtasun-indarrek gailentasun gehiago izan beharko lukete.

Behaketa hau garrantzitsua da, indarkeria honen *zergatiaren* ikerketa ausart eta sakonago bat faltan botatzen baita. Ikerketa honek zergatien gainean lanean aritzea baimenduko luke, hauek bakandu eta sendatzea posible balitz eta erreakzio penal edo judiziala bere arlo propioari utziz.

### **2. Osoko legearen babes esparruari buruz: gizonak, adingabeak eta adinduak kanpoan uztea.**

#### **a) Indarkeria testu informatuaren arabera**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Kontzeptualki, indarkeria agresibitatearen fase aurreratuago bat bezala aurkezten da. Zentzu teknikoan, indarkeria ez dago eraso bakandu eta esporadiko bategatik, baizik eta agresio hori ostera, biktimaren testuinguru baten eraginpean eman beharko da. Erasotzailea- subjektu menperatzailea- biktima menpeko sentitzen den giro batean mugitzen da. Egoera hau etengabeko erasoak jasaten dituen testuinguru batean pixkanaka sortzen da eta biktimaren pertsonalitatearen hondatzearekin bat. Hau dela eta, azken finean, guztia indarkeria moral batera bideratzen da. Zentzu honetan, menpekotasun harremani buruz hitzeging daiteke.

Ohi bezala, Zigor Zuzenbideak subjektu menperatzaile eta menpekoaren arteko harremana une ezberdinetan begiesten du, zeren eta nagusitasunaz gehiegi baliatzen den bidegabeko portaera batek portaeraren gaitzeste haundiago bat adierazten du. Baina menperatze harreman hau ez da gizon/emakume binomioarekin baliokide. **Honegatik, arauak menperaldi egoeren aurrean erreakzionatu dezake baina subjektu menperatzailearen sexuaren gainean neutro izan behar du.**

Indarreko legeriak “etxeke” indarkeria bereziki deitutako indarkeriaren ikusmoldea gainditurik zuen, kriminologia errealitateak etxeke indarkeria ezberdinak agerian jartzen zituelako. Komenigarria da era orokor batean hiru etxeke indarkeria mota bereiztea, hau indarkeria hori jasan duen subjektuaren arabera:

- “etxeke” indarkeria
- adinduen aurkako indarkeria





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

- adingabeen aurkako indarkeria
- eta adingabeek adin gehiago dutenen aurka gauzatutako indarkeria eta anai-arreben arteko indarkeria modu marjinal batean ere gehitu beharra dago.

Emakumeen aurkako indarkeriak, estatistika judizialaren batzbesteko handiena duena izanik (kasuen %91,1), gizonen aurkako indarkeria kasuak ere aurrean daude (kasuen %8,9a), baita adin gehiago dutenen aurkakoak eta adingabeen aurkakoak. Umeen tratu txarren kasuen urritasuna organo judizialen aurrean, kasu askotan indarkeri mota hau babes judizialek kanpo geratzen zirela adierazten du, aldiz, Autonomia Erkidego batzuetako adingabeen babesari buruzko datuek beste errealitate bat nabarmentzen dute. Nahiz eta genero indarkeria, sarri emakumean ematen dena, estatistikoki era handiago batean azaltzen dena izanik.

### **b) Indarkeria eta menpekotasun harremanak: etxeko indarkeria**

Indarkeria menpekotasun harreman bezala zehaztuta, menperakuntza hau handiago da oraindik pertsona ezinduetan edo umeetan, zeren eta heldua, emakume erasotua, erreakzio ahalmena gordetzen du nahiz eta nagusitasun garbi huraren ondorio bezala lermatua egon. **Ondorioz, adinduen eta haurren aurkako indarkeria oraindik esan badaiteke larriagoa da, hain zuzen ere babes eta auresuposatzen den salaketa ahalmen ezagatik.**

**Emakumeak ez diren pertsonen testuinguruak batzbesteko**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**terminoetan gutxiengoa izateak ez luke eragotzi beharko indarkeriaren aurkako eta menpekotasun arloetan osoko lege batek bere babes eremua beste pertsona horiei ere zabaltzea. Zuzenbideak babes eskakizunak oinarri berdin batetik sortzen direnean gutxiengoa babestu behar badu, Legea ere subjektibo puntu batetik osoa izan beharko litzateke berdinak diren egoera objektiboetan.**

**Beraz, ez da emakumearen babes handiago bat lortzen legeak bera bakarrik babesten duelako, bere eremutik adingabeak eta adinduak, nahiz eta gizonak baztertuz.**

Egia da beste talde hauek badutela babes juridiko egoki bat baina legeak puntualki eransten dituen neurri onuragarri eta sakonak beste talde honi ere gehitu beharko litzatezke. Zergatia erraza da: bakarrik lege berriak eskaintzen dituen babes neurri handienak guztiontzako helduko ez ziren ondasun urriak liratezkeen kasuan, legearen esparru subjektiboaren murrizketa bat justifikatuko litzateke. Horrela ez izanik- den bezala, ez denez- Kontseilu honek ulertzen duena zera da: legearen babes eremua dependentzia, menpekotasun edo gutxiagotasun egoera berdinetan dauen guzti haiengana heldu beharko litzatekeela.

Azken finean, Legeak hasiera puntu bezala askotan eraso soil batekin nahasten den indarkeria kontzeptu bat hartzen du eta gainera, subjektu menperatzaile baldintza bakarrik gizonari ematen dio eta menpekota emakumeari, legearen arreta berdintsua eskatzen duten beste egoera posible batzuk baztertuz. Eta egia izanik legearen helmena legegileari zehaztea dagokionez, Kontseilu honek zera adierazten du: **ez da**



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**arraizoizko azalpen bat aurkitzen, datu estatistiko hutsa alde batera utziz, babes penal eta judiziala, beste neurri hezitzaile eta sozialetaz gain, bere sexuagatik soilik emakumera bideratzeko, neurri jakin batzuk diskriminazio positiboaren teoriarekin bat justifikatu gabe ere.**

### **3. Aurreproiektua eta “diskriminazio positiboa”**

#### **a) Zer da diskriminazio positiboa?**

Testu informatuaren Zioen Azalpenak zera adierazten du Konstituzioko 9.2 artikulua parafraseatuz: botere publikoek *“ekintza positiboko neurriak hartzeko betebeharra dute hurrengo eskubideak benetazkoak eta eraginkorrak egiteko (askatasuna, berdintasuna, ez diskriminazioa), hau bere osotasuna eragotzi edo zailagoak bihurtzen dituzten oztopoak irabiatuz”*. “Ekintza” positiboa adierazpena erabiltzea erabakitzen da “diskriminazio” positiboa baino, nahiz eta ez europear jurisprudenzian ezta konstituzionalean ere ez den erabiltzen baina beharbada zehaztea beharrezkoa dena bere ingurunea aztertzeko. Guzti hau dela eta dator testu informatuaren garrantzia.

Maiztasunez diskriminazio positiboaz hitzegiten da gutxietsiak dauden taldeen bizitza-kalitatea hobetzera zuzendutako politikak aipatzeko, pertsona hauei, laguntza gehiago dutenen aukera jabetasunean eta eskubideen gauzatzean maila berdina lortzeko. Izaera honetako neurrien



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

bitartez, botere publikoak -egoera berdintzeko- desabantaila baldintza horretan dauden haien egoera jasotzen saiatzen dira; hau dela medio arrazizmoa, sexismoa eta adindu edo ezinduen aurkako diskriminazioa ezabatzeke ekintzak hartzen dira.

Ordena konstituzionalean, oinarrizko eskubideak berdinak dira hiritar guztientzako, hala eta guztiz ere, bere gozamen berdintasunerako berme instituzionala askotan ez da nahiko eta horregatik beharrezkoak dira, aldi baterako behintzat, ezberdintasun egoerak konpontzera bideratutako politikak. Hau izan zen lehen aldiz Estatu Batuetan diskriminazio positiboko *affirmative action* deitutako tekniken bitartez emandako pausoa: ordurarte desabantaila zuten taldeei kargu eta lan publikoetan portzentai kopuru bat gordetzea helburutzat zuten arauak ziren. Oinarrizko ideia zera da: neurri hauen bitartez desabantaila duen taldeak errespetatua izaten hastea lortzen badela, gutxinaka baztertzen joan ahal izango direla eta aukera berdintasun bat ezarriko dela edo, kasurik ezin hobean, emaitzen berdintasun bat. Azkenean, diskriminazio positiboa hiritarren eskubideen gozamenean berdintasuna lortzeko borrokan pauso ausart bat da baina diskriminazio positiboa ez da oinarri iraunkor batean bihurtu behar.

Esan bezala, askotan hitzegiten da ekintza edo diskriminazio positiboaz bi kontzeptuak bereizi gabe, testu informatuak lehena aukeratzen duelarik. Zentzu honetan ñabarduraren bat egin daiteke zeren eta aukera berdintasunerako teoriaren barruan, *ekintza positiboak* tratu berdintasunaren eskubiderako eskakizun bat dira eta, orain arduratzen gaituenean, emakumeei ematen zaien abantailak izateagatik oinarritzen dira. Hauek, gizonezkoentzat aurreiritzi paraleloekin nahastu behar ez



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

direnak eta berdintasunaren salbuespen ez direnak baizik eta, hain zuzen ere, bere adierazpen. Adibide gisa, erantzukizun familiar eta profesionalen arteko oreka lana emakumearen neurrira antolatuz hobetzen duten neurrien kasua.

Aldiz, *diskriminazio positiboak* bai salbuetsiko luke tratu berdintasuna eta ondorioz legez kontrakoa izan ahal litzateke, ordain-gisa saihestezin bezala beste talde bateko kideenganako aurreiritzirik izango balu eta kasu honetan bereziki, gizonak. Neurri bereziak dira, irizpide murriztailez, arduraz eta beti modu iragankorrez aplikatu beharrekoak; gainera, aurretik izandako eta guztiz egiaztatutako ezberdintasun egoerak berdintzeko beste inolako aukerarik ez dagoenean joko da hauengana.

Baina ekintza positibo irudi honek bere eraketan oraindik arlo objektibo zehaztugabe bat du. Beraz onartzen da dudarik gabe laneko berdintasunaren promozioan adibidez, 76/207/CEE Direktibak, 4. atalaren 2. artikuluan gizon eta emakumeen artean berdintasun aukerak sustatzera bideratutako neurrien aukera onartzen du, bereziki, *egitatezko ezberdintasunak zuzentzeko*. Hauteskunde arloan edo politika ordezkartzaren ere, izera moderno batekin kuota sistema proposatzen da (horrela, adibidez, 1994ko maiatzak 24ko hauteskunde lege belgikarra edo italiar Errepublikaren Senatuaren hauteskundeari buruzko 276/93 Legea edo Diputatuen Ganberaren Hauteskundeari buruzko 277/93 Lege italiarra).

Baina, EEJAK 1995eko urriak 17ko epaian -*Kalanke kasua*- agerian jarri duenez, tratu berdintasun sustapenerako baino urrunago doazten neurriek ez dute lekurik, bereziki, gizonezkoen taldeko kide izate hutsagatik



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

aurreiritzi bat suposatzen duten neurriek. Hau dela eta, emakumeei lehentasuna automatikoki ematen dioen sistema bati balioa ukatzen zaio. Honela, ekintza positiboa zuhertasun testuinguru batean ulertu beharra dago eta kontuan izanik, edozein kasutan, doktrinak agerian jarri duen bezala (ikusi L.M. Díez-Picazo), **beti ondasun eskasak egokitzeko modu bezala berdintasun aukeretatik sortutako arazoak konpontzeko helburua duela**. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 23. artikulua gutxien ordezkaturik dagoen sexuaren mesederako abantaila zehatzak eskaintzen dituzten neurrien hartzeak ez duela berdintasun oinarria eragozten ezartzen du. Baina beti automatismo huts onartezin baten oinarriaren arabera eta neurriaren denborazko mugaketa beharraren arabera baita.

Zentzu honetan, diskriminazio positiboaren irudia emakumearen estatutoari aplikatuta, bere berezko gunea gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko tresna bezala du. Bere funtzioa, duen testuinguruagatik dela eta, eragozpen edo gizarte atabismoagatik eta abar, emakumea gizonarekiko gutxiagotasun egoera batean egotean datza. Egoera honen aurrean Estatuak berdintasun hori sustatzea aukeratzen du bereziki ahulezia egoera handiago batean aurkitzen diren emakumeentzako- gizartearen eboluzioa beregain aske utzita joango litzatekeena baino azkarrago joatea baimenduko duten baldintzak sortuz. Ikuspuntu honetatik **diskriminazio positiboa lan edo funtzionaltasun motako neurrien faborezko jokaeretan irudikatzen da, bizitza familiar eta profesionalaren bateragarritasunean, ondare batzuen sarbidean (etxebizitza, informazioa, osasungintzan eta abar) edo babes berezian (adibidez publizitate iraingarria).**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Eta zentzu honetan izan da non jurisprudentzia konstituzionalaren ekintza positiboari buruzko erabakiek lekua izan duten. Oraindik gure jurisprudentzia konstituzionalak (adibidez 128/1987 KAE) ez du “*diskriminazio positiboa*” adierazpena erabiltzen baina bai onartzen du “*botere publikoen jokabidea, zehaztutako giza-talde jakin batzuen egoera, beste ezaugarri batzuen artean sexua (eta esan daiteke ia kasu guztietan emakumezko baldintzagatik) eta lan esparruan ukaezinezko desabantaila egoeretan kokatuak, gizartean sakon sustraituak aurkitzen diren eta ezabatzeko oso zailak diren tradizio eta ohituretatik sortutako arrazoiengatik, ezin dela berdintasun oinarria urratutzat hartu, nahiz eta horientzat tratu hobea bat ezarri, zeren eta berez, egoera ezberdinak direnei tratu ezberdin bat ematean datza azkenean*”.

Norabide berdin honetan zera adierazten du: “*gizon eta emakumeen arteko berdintasunera heltzeko helburuaren lorpenak “ezberdintasun ezberdin” eskubide baten ezarpena baimentzen duela*”, hau da, dauden gizarte egoera diskriminatorioak berriz orekatzeko neurriak hartzea sozialki erdeinatutako emakume eta gizonen arteko parekatzea funtsezkoa eta eraginkorra izatea lortzeko eta emakumearen aldeko berdintasun eskubidearen gozamen eraginkorra ziurtatzeko”. (229/92 Epaia). 109/93 KAEk emakumearen desabantaila egoera orekatzeko beharra justifikatzen du, aukera berdintasun erreal bat ziurtatzeko helburuaz.

Funtsean, ekintza positiboaren oinarriak honako hauek dira:

1go Emakumeen taldeko desoreka egoera erreal bat.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasun bat oztopatzen duten oztopoak baztertzeko neurrien beharra.
3. Aukera berdintasun erreala ziurtatzeko helburuaz, gutxietsia dagoen gizataldeari zuzendutako laguntza neurriei bitartez, oztopo horiek benetan baztertuak izan daitezela.
4. Tratu berezi mesedegarriena, emakumeek heldu beharreko ondareen eskasiaren ondorio bezala izatea.

### **b) Diskriminazio positiboaren berezko esparrua.**

Horrela ulertua, Konstituzioaren 9.2 artikuluan oinarritutako ekintza positiboa deitutakoa, 14. artikulua arabera, dagoen berdintasun eskubidea berriz ezartzeko, ezberdintasun erreal egoerak zuzentzen saiatzen da. **Baina bere oinarritik argi ikusten da, orekaren berrezarrera dela ekintza positiboaren muga eta ezin du eraman alderantzizko desoreka batera gehiegikeriagatik.** Hau da, diskriminazio positiboaren neurriek eraginkorra den berdintasun bat lortzeko oztopoak bazterzea nahi da, gizarteak sortzen dituen desoreka patologikoak zuzenduz. Hemendik, giza-esparruan, hezkuntza-arloan, zerbitzu edo asistentziako adarretan, lan-arloan edo funtzionarioan, izaera honetako politikak ezartzea.

**Esandakotik, ari garen esparruetako batean aurre desoreka egoera bat egon ezean eta gainera, emakumeak heltzen dituen ondareetan eskasia ez dagoenean, ekintza positiboak desegokiak direla ulertzen da.** Eta honekin bat, diskriminazio positiboa emakumearen oinarritzko eskubideen zigor-babesa eta babes judizialarekin zerikusian egokia den edo ez pentsatu beharra dago.





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**Ba ongi, esan daiteke diskriminazio positibo neurrietan irudikatutako sustapen teknika hura, zigor esparruan nahiz eta organo judizialean ez dela aplikagarria, batez ere automatismo izaeraz eta denborazko inolako mugarik gabe ezartzen denean. Gainera, ez dira esparru honetan neurria oinarritzen duten desoreka egoerak biltzen.**

**Ekintza positiboa ezin denez zigor-izaera neurrien bidez planteatu, esparru judizialak ez du zerikusirik hasiera batean ekintza positibo horretan emandako ekimenen beste esparru haiekin. Hemendik distortzionantea suertatzea arau bat “osokoa” deitu arren, neurri on batean judiziala izatea eta, hala eta guztiz ere, ekintza edo diskriminazio positiboan oinarritzea.**

**c) Diskriminazio positiboaren desegokitasuna zigor-arloan eta judizialean.**

Hain zuzen, **zigor-babes edo babes prozesalari buruz denean, oinarrizko eskubideak babesten diren neurrian, ezberdintasun hori abiapuntu bezala hartzeak ez du lekurik; ez zigor-babesari dagokionez, ezta babes judizial eraginkorrari dagokionez ere. Gorago esan bezala, ez gaude “ondare eskasia” egoera batean, mugaturik, hauetara faboraturik dagoen talde batek bakarrik heltzeko aukera izateko moduan.**

Hau horrela da zeren, adibidez, ohorerako eskubidearen babesean (irainaz oldartzen dena) edo askatasun eskubidearen babesean (mehatxuaz edo indarkeriaz oldartzen dena), gizon eta emakumeak,



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eskubide horren babes berdina duen egoera batetik hasten dira, ez dago hasieran inolako desabantailarik, beraz, ez da ulertzen emakumearen askatasunari gehiegizko babesa ematen dion zigor-arlo tipo ezberdin bat, bereziki, gizonaren askatasunaren murrizketa handiago baten kontura denean, zigor-arlo tipoan aurreikusitako zigorraren gogortzetik ondorioztatzen den bezalakoa.

Eta ekintza hori edo hobe esanda iadanik diskriminazio positibo hori emakumearen ondareak bakarrik babesten dituen organo judizialen eraketara bideratzen denean, larriagoa da desoreka ondorengo arrazoi hauengatik:

1go Babes judiziala ez da berez suposatutako erabilgarritasun mugatu bategatik behar dutenei bere banaketa eta atribuzioa baimentzen ez duen ondare urri bat; hau da, babes judiziala ez da bere esparrutik gizatalde bakar bat ere baztertzea beharrezko duen ondare bat (gizonak kasu honetan), gutxietsiago dagoen beste talde bati beharreko betetzea emateko (emakumeak kasu honetan). Sintetikoki esateko: babes judiziala guztiontzako, inor baztertu edo gutxietsi gabe izateko aukera dago, hau da, inor ezabatu edo diskriminatu gabe. Ezberdina litzateke, mugaketa legal batek organo judizialek ebatzi beharreko gai kopuru gehiengo bat inposatuko balu, etxeko indarkeria ezagutzera aurreikusia, eta mugaketa horrek gizonen aurrean emakumeei lehentasuna ematea behartuko balu (ondare urri baten banaketa gutxietsitakoei emateko lehentasunaz). Baina hau ez da gertatzen eta informazioa ematen ari garen proiektuan ere ezingo litzateke eman.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

2º Ezin daiteke esan ere ondare urritasuna behar ez diren atzerapenekin eman beharreko babes judizial baten dispentsaren azkartasun edo arintasuna litzatekeela; hain zuzen ere, jakina da organo judizial berrien eskumen esparruan hiritar guztien sexu bereizgarriak gabeko inklusioak ez duela inolaz ere emakumeentzako beharrezkoak ez diren atzerapenen arriskurik suposatzen eta hauen prestazioa segurtatzeko ez duela gizonen bazterketarik eskatzen. Hau zerbait pentsaezina da, berdin, sortuko diren organo kopurua logikoki guztiontzat behar adina izango diren bezala eta etxeko indarkeriaren gizonetzko biktima poblazioaren portzentaia emakumeenarekin parekatu ezkeror askoz txikiagoa da. **Honegatik ez da ulertzen zer den emakumeen alde babes judizialak irabazten duena, organo judizial berrien eskumenetatik gizonak baztertzeagatik.**

3. Ez dago esaterik aurreko argumentuak okerrak direla, babes judizialean gizonaren bazterketak ez duela diskriminatzen, organo judizial arrunt eta orokorretan lortzea posible duela argudiatuz. Kontuan izan beharra dago kasu honetan diskriminazioa ez dagoela babes judiziala lortzean edo ez lortzean, baizik eta gizonak mekanismo judizial berritik baztertzean eta babes hori lortzeko modu konkretuan eta bereziki eraginkorrean. Organo hauek lehen asetzen ez ziren edo babesten ez ziren edo okerrago babesten ziren beharrak hobetzeko sortzen dira. Beraz, organo berri hauek egungo organoekin parekatuta ez dute inolako abantailarik ematen -eta kasu honetan sorrera alferra da- edo ematen badute, eskubide berdina eman behar zaio gizonari, zeren eta diskriminazio positiboak ezingo luke azaldu babes judizialean emakumeari plus bat ematea gizonaren gainetik.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Beherago azalduko den bezala, legeak ekintza positibo bezala duen arlo judizialera lekualdaketa, logikarik gabeko eta zentzugabeko ondorioekin ordaintzen da, bai zentzu antolatzaile batean bai zentzu prozesal batean. Hau dela eta, Aurreproiektuak egiten duen aukeraren beste planteamentu serio bat aholkatzen da.

**Aurrekotik ondorioztatzen da Aurreproiektuan ekintza positiboa deitutakoa ez dela sikiera diskriminazio positibo kasu bat ere, baizik eta hobe esanda diskriminazio negatibo bat.** Portaera jakinen erregimen punitiboa gogortzean datza, hauek objektiboki berdinak izanik, larriago zigortuz subjektu aktiboa gizona denean- hau da, egileari buruzko arrazoiengatik, eta ez bidegabekoaren larritasun handiagoagatik. Zorionez, guzti honek, baztertuak bezala ulertu beharreko zigor-arloko irizpideetara garamatza. Gai honi beherago zehaztasunez helduko diogu. Eta diskriminazio negatiboa da baita bere abantailen onuradun posible bezala gizonak baztertzen dituen organo judizialak sortzea, bazterketa hori inolaz ere justifikagarria izanik.

### V.

#### **PROPOSATUTAKO NEURRI ZEHATZEN AZTERKETA**

##### **1. Emakumean gauzatutako indarkeria kontzeptuaren gainean**

###### **a) Kontzeptuaren garrantzia.**

Legearen babes-esparrua ezin daiteke ulertu 1.2 artikulua gabe.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Manu hau arau informatuaren harri angeluarra da, lege guztiaren aplikazioa bere menpean dagoelarik.

Aipatutako manuak *emakumean gauzatutako indarkeria* zer den definitzen du eta atal honek lege guztia menperatzen duela diogu hurrengo arrazoi hauengatik:

1go. Beste ezer baino lehen, legearen lehen helburua indarkeria horri aurre hartzea delako, lan prebentibo hori ondorengoan zehaztuz:

- Informazio kanpaina eta sentsibilizazio neurriak (3. artikulua);
- hezkuntza sistema gatazken ebazpen baketsu bat irakastera zuzentzea (4.artikua);
- gizon-emakume berdintasun ondarea hezkuntza sisteman sustatzea (5.artikulua);
- Emakumearen Institutuak presentzia izango duela hezkuntza ordezkaritza organoetan (6.artikulua);
- publizitate esparruan emakumearen duintasuna zaintzea eta
- osasun esparruan emakumean gauzatutako indarkeria modu goiztiar batean antzematen saiatzea.

2.Gainera, II Tituluak onartzen dituen eskubide bilduma indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako dira, Titulu honen artikulua bakoitz eta guztietan egiaztatzen dena eta arauaren egitatezko oinarri bezala eskubide horien gozamina indarkeriaren biktima izan den emakumearentzat dela aurreikusten dituenak.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

3. Azkenik, zehazki judiziala den kontzeptu hau muinekoa da, espezialitate judizial eta eskumeneko guztiak honen menpean daudelako, berregiten diren zigor-arloko tipoen aplikazioa bezala.

Idea hau azpimarratuz, esan beharra dago egoera honen adierazpena-”indarkeriaren biktima izan den emakumea”- (nahiz eta behin-behineko izaera izan) bloke arauemaile berri honen aplikazioaren hartzekoduna emakumea egiten duen titulua dela eta horren bezala, adierazpen hori ez dator erabaki administratibo batetik edo aurreikusitako izapide objektibo eta arauemaile batzuen aldiberekotasun gehiago edo gutxiago erregulatutako adierazpen baten bitartez aplikatutako lege zuzen batetik baizik eta alderantziz, guztia adierazpen judizial baten baitan dagoela.

### **b) Definizioan elementu intentzionalaren sarrera desegokia**

Emakumeari buruzko indarkeria horrela definitua, aipagarriena da ez dela Zioen Azalpenean sartutako definizio bat, ezta ere testuaren artikulua ataletan bere arloko atari deskribatzaile bezala, baizik eta lege osoko aplikazioaren ixteko giltza izateaz gain, **ez da datu objektibo eta kanpokoan hautematean oinarritzen baizik eta erasotzailearen asmoan**. Soilik artikulua horren bigarren koma-artean gehitzen da aurreikuspen deskribatzaile bat, indarkeria hori non isladatu daitekeen erlazionatzean (sexu-erasoak, mehatxuak, bortxaketak eta abar) baina funtsezkoa dena zera da: indarkeria dagoela *“diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonen botere-harremanak emakumeen gainean*



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

*mantentzeko tresna bezala” erabiltzen denean.*

Ba ongi, intentzionaltasun horren egiaztapenetik, zigor-konnotazio garbiaz -bere atal deskribatzailean zigor-irudietara igortzen dena- guztia zintzilikatzen da: indarkeriaren biktima izan den emakumeak izan ditzazkeen eskubide bildumaren gozamina, arauan aurreikusitako neurri instituzionalak eta larriagoa dena, zigor babesa eta, oraindik txarragoa, neurri prozesaletatik aparte antolaketa judiziala eta adierazpen hori, esan bezala, aldi berean erabaki judizial batean zintzilikatzen da, zeren eta soilik Indarkeria epaile batek bereizi dezake zigor-epai batean edo bestela, gai zibilen eskumena beretzako eskatzean edo baita, adierazgarritasunez, kautelazko neurriren bat hartzean.

Intentzionalitate horren egiaztapenak kasu konkretuan arazoak sortuko ditu. **Baina, benetan egiten dena emakume baten aurkako eraso guztiak presuntzio arauemaile horrek gailendurik datorrela uste bada eta asmo horiekin erasotzen dela edo helburu horien arrazonamenduaz, orduan, zigor-arloan, aurrerago esango den bezala, egile zigor Zuzenbide bat birsortzen ari da eta organiko-judizial arloan jurisdikzio berezien sistemara itzultzen ari da, XIX. mende bukaeran gainditua eta Antzinako Erregimeneko berezkoa dena, zeren eta jurisdikzio berezi bat sortzen ari da, emakumeak gabetzen dituen, biktimaren sexuan eta erasotzailearen asmoan oinarritzen dena; beherago ikusiko ditugun gaiak hauek.**

Laburbilduz, egilearen asmoan oinarritzen den definizioaz datza eta, dituen ondorioen arrazoiak direla eta (tipoen interpretazioa, eskumenen



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

mugaketa eta ondorio prozesalak), bere eduki eta ondorioei deritzenez, alde batera utzi beharra dago.

### **c) Aldez aurretik jakinaraztea merezi duten efektu desitxuratuak**

Aurreproiektu guztia 1 artikulua ren menpe dago, bereziki bere 2. parrafoa. Adierazpen honetatik aurrera, nahikoa da imajinatzea antolaketa judizialera eta prozesalera eraman ditzazketen ondorio batzuk ikus ahal izateko benetan zer nolako zentzugabeak izan daitezkeela. Adibidez, V. Tituluko IV. Kapituluaren babes eta segurtasun judizial neurri guztiak bai dira 1.2 artikuluan sartutako emakume konkretu horientzat, horregatik emakumea beste asmo batekin eraso izan bada (mendekua, jelskortasuna, gorrotoa, haserrealdia eta abar) etorriko den geroko legea, nahiz eta honen espezialitateak, ez dira aplikatuko.

Era berean, Indarkeria epaileek ezagutuko dituzten delituak edo babes neurri batzuk beraien logika Guardiako epailearen aurrean bideratu ezkerok dute eta epai azkarren bitartez. Hau dela eta, emakumeen aurkako eraso en esparruan hurrengo ikuspegi honetara heldu daiteke:

-Etxeko indarkeria erasoak eta, beraz, -1 artikulukoak ez izateagatik-instrukzio epaileek edo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileek ezagutzen dituzten emakumeen aurkako erasoak baita eta 27/2003 Legearen erregimena aplikagarria den haiei;

-1 artikuluko erasoak, emakumearen gaineko indarkeria kontzeptu





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

juridikoaren osagai direnak, hauen ezagutza Indarkeria epaileena izanik eta

-emakumeen aurkako indarkeria berdin osatzen duten erasoen osagarri direnak eta Indarkeria epaileek ezagutzen ez dituztenak, baizik eta eskumen horiek hartzeko bateragarriak izan diren Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileek edo Instrukziokoek. Gainera 27/2003 Legearen erregimena aplikatuko dute aipatutako lehen kasuarentzat.

Adierazitakoan gehitu daiteke -adibideak jartzen jarraituz- V Tituluko II Kapituluaren babes neurri horiek, indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzat direnez, kasu zehatz horietan bakarrik aplikatuko direla, beraz, 1.2 artikuluko asmoaz eraginak izan ez diren baina indarkeria egoera objektibo baten biktima izan diren emakume haiek ezingo dute neurri hauek izan. Zentzugabetasuna gehitzen da adibidez, espezializatu gabeko epaileen aurrean gaudenean, halabehar indarkeriarekin beste kausa batzuk bateratzen dituzten epaileak, 87 bis artikuluko 3 eta 4 suposizioen barne egoteagatik: hauen epaitegi berdinean neurri horietaz, 1 artikuluko kasuak ez izateagatik- baliatu ahalko ez diren etxeko indarkeria izan duten biktimen kasuak -emakumeak izan edo ez- bideratuko dira.

**Azkenean, judizial arloan organo espezializatu batzuen sorketaren ideiak lehentasuna duela ikusita eta ideia honen gainean beste nobedade guztiak biratzen dituztela agerian, zera proposatzen da: berritasun honetarako prozesalista, epaile eta magistratu, fiskal eta kausa hauetan beste zenbait profesional aurreratuek, lan talde bat**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

osatzea, diseinu organiko eta prozesal bideragarriago bat egingo dutenak. Ideia hau babes ordenaren erregulatzailer den 27/2003 Legeak sortutako erregimena existitzen den momentutik gomendagarriagoa da. Bere eremuan Jarraipen-Batzorde bat sortu da eta honen lan ezberdinen bitartez, ordena horren ezarpen eraginkorraren arazoak ondorioztatzen dira. Hau orain horrela bada, zailtasun gehiago iragarri daiteke 27/2003 Legearen erregimenera orain informatua gehitzen denean.

### d) Iradokitzen diren definizioak

Ongi ba, azaldu denari adituz, zigor esparru judicial esparruari dagokionez indarkeria definizio bat sartu behar bada, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak iadanik adierazitako etxeko indarkeriaren fenomeno osoa barne hartu beharko duela iradokitzen du; edozein kasutan, intentzionalitate konnotaziorik ez duen eta konnotazio soziologiko mota gabekoa den definizio bat bera, hau da, ideologizaziorik gabeko definizio bat.

Gainera, eta kasu guztietan, funtsezkoa den puntu honetan Aurreproiektuan berriz aztertzea iradokitzen da eta aztertze hori lau aspektutan egitea:

- legean definizio baten berezko beharrari buruzkoa
- soilik emakumeei buruzkoa izatea eta ez bere osotasunean etxeko esparruari buruzkoa
- arauaren aplikazioan izango dituen eraginei buruzkoa eta



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

- elementu intentzionalak izatearen desegokikeriaren gainean.

Iradozikun hauek ez onartzearen kasuan ezta, bereziki, zigor-arlo eta judizial esparruen barruan etxeko indarkeriaren ideian legearen eremuaren hedapena, eta emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan mantentzen jarraitu ezker, badira gutxienez deskribatzaileak diren beste definizio normatibo batzuk, elementu subjektibo eta intentzionaletatik kanpo eta, ondorioz, egokiagoak. Kasu bezala, adibidez, Kanariaseko apirilak 8ko 16/2003 Legearen 2. artikulua, *etxeko indarkeriaren aurkako emakumeen prebentzio eta osoko babesari buruzkoa*. Eta zera dio:

*“Lege honekiko, emakumeen aurkako indarkeria bezala biktimaren aipatutako sexuari dagokion edozein jokaera mota, eta honen adina kontuan hartu gabe, baliabide fisiko edo psikologikoen bitartez, mehatxuak, larderiak edo bortxaketak barne, ondorio posible edo erreal bezala min edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologiko bat duena emakumearentzat, eta erasotzailearen aurrean biktimaren ahultasun edo menpekotasun fisiko, psikologiko, familiar, lan-arloko edo ekonomiko baten egoera baten babespean egina dena”*

Onargarria den beste definizio bat Deklarazioaren 1go artikulua da, emakumeen aurkako indarkeriaren ezabapenari buruzkoa bera, Nazio Batuen Biltzar Nagusiko Ebazpenak 1993ko abenduaren 20an hartutakoa eta ondorengo hau dioena:

*“Ebazpen honekiko, emakumeen aurkako Indarkeria bezala sexu femeninoa izatean oinarritzen den edozein indarkeria ekintza ulertzen da, eta ondorio bezala emakumearentzako min edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologiko bat duen edo izan dezakeena, halaber, ekintza horien mehatxuak, bortxaketa edo*



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

*askatasun-gabetze arbitrarioak, nahiz bizitza politikoan (sic) nahiz bizitza pribatuan eman”.*

**Beherago adieraziko den bezala, testu informatuaren aurreikuspenen aplikazioak, idatzia datorren bezala, benetan desitxuratutako ondorioak ekarriko ditu. Hau ez da sino dogmatiko bategatik nabaritzen baizik eta, orain momentua izanik, ondorio erreal eta ez hipotetiko batzuk eragozteko desioagatik.**

## **2. Zigor Kodeko erreformaren gainean**

### **a) Legegintza-aurrekariak**

Aurreproiektu honen balorazioa puntu honetan dagoen egoera legalaren azterketa batetik hasi behar da, zigor-arlo erreal baten esparruan zer nolako ekarpena egiten duen zehazteko helburuaz.

Zuzenbide Zibilak tratu txarren fenomenoaren familiaren betebeharrak saihestezinen urratzea bezala hartzen du, honegatik, familia Zuzenbide ondorioak sortzen dira. Horrela kontuan hartu ditzazkegu semeek dagokienez, Kode Zibileko 166. artikulua (guraso-ahalaren gabetzeari buruz) eta 856. eta 756. artikulua (oinorde gabe uzteari buruz);



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

ezkontideari dagokionez (banatze eta dibortzioari buruz), eta 855. artikulua (oinordege gabe uzteari buruz baita).

Giza-arazo honen aurrean politika kriminala, zigor-arloko edukia eta biktimaren babes neurriak mailaz maila hedatuz joan da. Hain zuzen ere, familia-barneko indarkeri delituaren hasierako adierazpenetik aurrera eta lehen aldiz ekainak 21eko 3/1989 LOak gure Kodean, Zigor Kodeko 425. artikuluan, talde familiarreko beste kide batzuegatik eraso-jokaera sistematikoen aurrean talde familiar bereko kide ahulenei babesa emateko helburuaz, delitu hauen biktimen babesa handitzera bideratutako zigor-erreforma batzuk ekin dira eta orain arte ez da soilik emakumearekin identifikatu.

Garrantzia izan zuen lehen erreformak ekainak 9ko 14/1999 LOan leku izan zuen eta lehen helburutzat biktimaren babesa hedatzea izan zuen. Babes hori, eraso eman ahala, ezkontza-lotura edo *more uxorio* bizikidetzat desagertu zeneko hipotesian zabaldu zen; indarkeria psikikoa, indarkeria fisikoarekin bat, jokaera tipiko modu bezala sartu zen eta delitu horren eraginetarako ohikotasuna legalki definitu.

Aldaketa garrantzitsu horren ostean, azken urte hauetan, nahiz eta hilabeteetan, etxeko indarkeria, legegintza-arretaren objektu izan da eta lege-mailako erantzunak hartu dira, izaera punitibodunak, beste batzuk izaera prozesalekoak, giza-arazo hau modurik eraginkorrean borrokatzeko helburuaz. Horri buruz, garrantzi berezia izan dute, aipatutako *hiritarren segurtasun, etxeko indarkeria eta atzerritarren gizarteratze gaietan neurri zehatzen* Irailak 29ko 11/2003 Lege Organikoa, plano



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

errealean, urriak 25eko 15/2003 Lege Organikoaren bitartez eta behin-behineko espetxealdiaren erregulatzailer den Lege Organikoaren bidez zigor-mailako erreformarekin osatua. Azkenik, *etxeko indarkeriaren biktimen babes Ordenaren erregulatzailer* den uztailak 31ko 27/2003 Legea.

11/2003 Lege Organikoarekin gorenera iritsi zen Aurreproiektua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi honek positiboki baloratu zuen, etxeko indarkeria ohiko delitua osotasun moralaren aurkako delitu bezala tipifikatu bezain pronto. Hau, delitu honek babesten duen ondare juridikoarekin bat eginik, ekintza hauen ohiko erabilera giza duintasunarekin eta nortasunaren garapen askearekin argitasun gehiagoz lotzen den guztietan; jurisprudentzia azpimarratzen joan den bezala (ikus 1996ko abenduak 20ko eta 2000ko ekainak 24ko ANE Auzitegi nagusiko epaia).

Gainera, Zigor Kodeko egungo 153 eta 173. artikuluen arteko lehia-arazo bat konpontzen zuela ulertu zen, delituaren bidegabekoa den edukia era egokian kokatzen zuen sistematikoki eta modu zehatzago batean, lesio delituaren ondasun juridiko bezala soilik ez duela osotasuna edo osasun fisiko edo psikologikoa erasotzen. Delitu honen subjektu pasiboen taldearen zabalkuntza ere positiboki baloratu zen, hertsiki familiarraz gain, dependentzia edo menpekotasun beste esparru pribatu batzuetara hedatzen zuena.

11/2003 LOak egindako erreformarekin 617.2.2. artikulua falta ezabatzen da eta 173.2 artikuluan zerrendadutako subjektu pasiboetan eragindako indarkeria fisiko guztia, nahiz eta ekintza bakanak izan eta nahiz eta lesiorik ez eragin, ekintzaren edozein izaera iraingarriagatik



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

delituzkoa izatera pasa bezain pronto, Zigor Kodeko 153. artikulua erreformatik aurrera tipifikatuz. Manu honetan ekintzak adingabeen presentzian, ohiko bizilekuan edo biktimaren bizilekuan armak erabiltzen direnean edo baita 48. artikuluan aurreikusitako zigor edo segurtasun neurri baten haustea bitarteko egiten diren kasuetarako larriagoa den azpimota bat sartzen da.

Neurri erreal hauek neurri prozesalez lagundu ziren. Behin-behineko espetxealdiaren erreforma, zati handian, etxeko indarkeriaren arazoari irtenbide bat emateko bultzatua izan zen. Eta duela gutxiko uztailak 31ko 27/2003 Legeak, etxeko indarkeria jasan dutenen biktimen babes-ordena arautzen du. Aipatutako Legeak aurreikusten duen biktimen babeserako estatuko Erregistroa, martxoak 5eko 355/2004 EDtuz egin da.

**Laburbilduz, osotasun Legeko aurreproiektua, etxeko indarkeria jasan duen biktimaren babes politikaren lehentasunezko helburua izaten doan testuinguru batean jaiotzen da. Beraz, ez da neurri eskasia egoera batean jaio, baizik eta dagoeneko indarrean dauden legegintzako ekimen aniztasunetik -bereziki 27/2003 Legea baina indarrean daraman denbora laburragatik, oraindik aipatzen dugun fenomeno sozialari aurre egiteko duen eragin erreal baloratzen uzten ez duena.**

### **b) Aurreproiektuaren berritasunak**

Testu informatuak hurrengo zigor neurriak ditu:



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

1. Zigor Kodeko 148. artikuluan larrigarria den hipotesi berri bat sartzen da, lesio delituan biktima “ *emaztea izanik edo izandakoa izan, edo egileari afektibitate harreman analogo baten bitartez lotua dagoen edo egondako emakumea denean, nahiz eta bizikidetzarik ez izan*”

2. Subjektu pasiboa emaztea izanik edo emaztea izandakoa izanik edo, emakumea egileari antzeko afektibitate harreman baten bitartez lotua egonean eta ondorioz gizonezkoak bakarrik egin ditzazkeen **mehatxu eta derrigortze arinak, delitu mailara jasotzen dira.**

3. Iraindua, Kodeko 173.2 artikuluan jasotako pertsonaren bat denean, kasu guztietan, **Zigor Kodeko 48. artikuluko zigorraren urratzea** -urruntasuna zentzu zabalean- **askatasun-gabetze zigorrarekin zigortzen da** edo kautelazko neurri batekin baita.

Zioen azalpenak esaten duen bezala “*hiritarrentzat, emakume taldeentzat eta bereziki eraso mota hauek jasaten duten haientzat, Osootasun Legeak erantzun tinko eta erabatekoa eman nahi du eta zigor-tipo zehatzetan irudikatuz, irmotasuna erakutsi*”. Laburbilduz, Aurreproiektuak, egungo legezko erregimenarekin loturaz, zigor-arloko ordenan, **ekintzak emakumea subjektu pasibo bezala duenean, gizonaren erantzukizun penalaren larrigarritasun bat** suposatzen du, bai larrigarri tipo baten sarreraren bitartez -lesioen oinarritzakoari dagokionez-, edo delitu izatera, mehatxu falten edo bortxaketa arinen aldaketa.

Zigor neurri hauek zigor Zuzenbidea informatzen dituzten





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

oinarrietatik aztertu behar dira, hauek Konstituzioan aintzatetsiak.

### **c) Emakumeen aurkako indarkeria arloan, zigor-arloko babesaren zeregina**

Arau berri bat Konstituziora egokitzeari buruzko alde agertzearen eginkizuna Konstituzio Auzitegiari dagokiola jakin ez gabe, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokio, azaldu den bezala, Epaille eta Auzitegien aurrean ohi bezala babestu beharreko oinarrizko eskubideetan eragina duten legegintzako neurrien Konstituziora egokitzeari buruz informatzea (Botere Judizialaren Lege Organikoa 108,1 e) artikulua).

Aldez aurreko izaeraz, eta iadanik azaldutako konponbideen “judizializazio” nabarmenaren norabidean, kontuan hartu behar da, gaur egun onartzen dela kriminalitate kontrolaren emaitzik onenak ez direla lortzen delituari ematen zaion erantzunaren zorrotasuna haunditzen (zigor gogorrak), ezta sistema legalaren errendimendu eta eraginkortasuna hobetuz, baizik eta giza-antolamenduaren ekintza positibo baten bitartez, arazoaren jatorriei erasoz. Zigor Zuzenbidearen izatea, bigarren mailako funtzio bat onartzea da, hau da, arazoaren *agerpenetan* bakarrik berankor esku hartzen du. Arrazoi hau dela eta komeni da testu informatuaren hautabidea funtsez, emakumeen aurkako indarkeria arazoaren judizializazioan oinarritzen dela berriz azpirratzea. Zentzu honetan, 1985eko martxoak 26ko Europar Kontseiluaren Ministro Batzordearen 14. gomendioak (G) zigor-neurri hutsendako ordezkotzat gomendatzen ditu.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Etxeko indarkeriaren tratamenduan zigor-sistemaren erreforma bat suposatu duten lege-neurriak iadanik hartu direla kontuan hartuz, proposatzen diren zigor-neurri larrigarriek, emakumearen babes handiago bat bermatzearen onerako zigor-zorroztasun handiagoaren behar bat betetzen duten baloratu beharko da. Nahiz eta Estatuko zigor-arloko esku-hartzearen mugei buruz gogoeta zientifikoak egiteko kasua ez izan, kontuan izan behar da egungo azterketek, **zigor Zuzenbidearen tresnaren bitartez nola esparru jakin batzuetan segurtasun pixkat handiagoak lortzeko tentaldia existitzen dela** agerian jarri dutela. **Baina batzuetan, zigor Zuzenbide gorenena bezala hartutako honek, ezin du beregan itxaropena galdu gabe bilatzen den erantzuna eman.**

### **d) Emakumeari buruzko mehatxu eta bortxaketa arinen tipifikazioa delitu bezala**

Aurreproiektuaren 29 eta 30. artikuluek, mehatxu eta bortxaketen aurka babes neurri bezala, Zigor Kodeko 171. artikuluan bi atal berri gehitzen dituzte -mehatxu delitua- eta bigarren atal bat 172. artikuluari -bortxaketa delitua- eta 173.2 artikulua indarkeriaren esparru subjektiboa deskribatzeko tipo orokor bezala mantentzen da, sexuagatik diskriminaziorik egiten ez duen manua berau eta familia unitateko kide den guztia biltzen duena.

Modu honetan eta mehatxuei dagokienez zera daukagu:

- Arinak izanik eta emakumeen aurka, falta izatetik delitu izatera



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

pasatzen da 171.4 artikuluan.

- 173.2 artikuluan aurreikusia dagoen beste pertsonaren baten aurka bada, 620. artikulua, bigarren parrafoa, kontuan hartuz da.
- Mehatxua armaz edo objektu arriskutsuaz bada eta 173.2 artikuluko pertsonetikiko izanik –beraz emakumeak baita- 171.5. artikulua delitua da.

Bortxaketei dagokienez:

- Arina bada eta emakumeen aurka, 620.1.1go artikuluko falta izatetik 172.2 artikulua delitu izatera pasatzen da.
- 173.2 artikuluko beste pertsonaren baten aurka bada, 620.1.2 artikuluko falta da.

**Koadro honetatik ondorioztatzen da, jokaera objektibo berdinen aurrean -mehatxu edo bortxaketa arina- gizonezkoak delitu bat egiten duela, emakumezkoak berriz falta soil bat egiten duen bitartean; hau, nahiz eta legez kontrako jokaeragatik erasotako oinarritzko eskubideek Konstituzioan balio berdina duten eta honen titularra edozein pertsona izanik.** Honek beste balorazio-disfuntzio batzuetara darama, zeren adibidez, mehatxu arin bat epai gogorrago batekin zigortzen da subjektu pasiboa emaztea edo ex-emaztea izanik, mehatxua 173.2 artikuluan (adibidez, adingabeak) defititutako pertsonen aurka zuzendua bada baino, nahiz eta kasu honetan armak edo tresna arriskutsuak erabili izana.

Emaiz hauek ikusita, **171 eta 172. artikuluetan proposatutako**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**erreformak konstituzionaltasun eragozpen larriak aurkezten dituela uste da, Kontseilu honen iritziz, sexua dela eta delituaren subjektu aktibo eta pasiboa definitzeagatik, objektiboki burututako jokaera alde batera utzita eta emakumearen aurkako mehatxu eta bortxaketa arinen tratamendua zigor-arloan behar bezala ez justifikatzeagatik.**

Aurreproiektuak delitu arruntak delitu berezietan bihurtzen ditu subjektu aktiboaren sexu kualitateagatik, adibidez onestasanaren aurkako zenbait deliturekin Kode predemokratikoetan iadanik gertatu zen bezala, subjektu pasibo bakarra emakumea izanik (bortxaketa adibide gisa). Subjektu aktiboaren sexu arabera delituen banaketa, ez dago soilik testuaren 33. artikuluan -Botere Judizialeko Lege Organikoaren 87 **ter** 1.a) artikuluko berriak sartzen duena- emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiei eskumena emateko orduan, baizik eta gizonezko subjektu aktiboa duten legez kontrako zigorren berezko tipifikazioan, soilik gizonak burutu ditzazkenak, emakumeek ez.

Jokaera mota honek, zeinek subjektu aktiboa gizonezkoa edo emakumezkoa den arabera jokabide objektibo berdina bat delitu edo falta bezala tipifikatzen duen, Konstituzioaren 14. artikuluko berdintasun oinarriaren haustea suposatzen du, babes penalean sartze zaila duen diskriminazio positibo onargarriko doktrina edo irakasbide baten babespean objektiboki justifikatu ezin daitekeena, emakumea gizonaren askatasuna murriztearen kontura babestean oinarritzen delako; zigor-arloko zuzentasun handiagoarekin, askatasun murriztapen handiagoa azken finean. Beraz, Konsituzioarekin bateraezina den gizonezkoaren diskriminazio -negatibo- baten aurrean gaude.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**Hain zuzen, mehatxu edo bortxaketen delitu edo faltetan babestutako ondasun juridikoetan eraikitzen diren oinarritzko ondasunen defentsan, emakumea ez da gogorragoak diren zigorren bidez aurre-orokorra den eraginkortasuna aurkitzeko teknikaren bitartez zigor-arloko babes handiagoa baterako errekurtsoren bidez zuzendu beharreko desabantaila egoera batetik hasten. Askatasuna iada Kodean babesten da berdin bere titularra emakumea edo gizona izan. Ez dago inolako diskriminaziorik ezta menpekotasun egoerarik eremu honetan.**

Baina gainera, mehatxu edo bortxaketa arinen jokaera hauek subjektu aktiboa gizonetzkoa denean delitura bihurtetak, Zigor Kodeko konstituzional oinarriekin zuzenezko kontraesan bat suposatzen du, aurrelegegilea oinarritu ahal izango litzatekeen imajinagarri diren hipotesi guztietan, eta hau, ondorengo arrazoi hauengatik:

1. Larrigarritasunak jokaera mota hauen subjektu pasiboa emakumea dela dioen estatistikari men egiten badio, orduan, kanpoko ekintzengatik emandako kasu konkretuan erantzukizun larriagoa bihurtuko litzateke, erruduntasun printzipioa urratuz, epaitutako gizonetzko konkretuak bere erantzukizuna beste batzuen ekintzengatik, portaera pilaketaren doktrinaren arabera, larriagotua ikusiko lukeen guztietan.
2. Larrigarritasuna emakumearen gainetik gizonaren diskriminazio edo menpekotasun asmoz mehatxu edo bortxaketa oinarrituko



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

balitz (Aurreproiektuaren 1.2 artikularekin manu hauek erlazionatuz) hurrengo hipotesi honetatik hasiko litzateke: gizonak bere emaztea edo ex-emaztea mehatxatu edo bortxatzen duenean, kasu guztietan bere nagusitasun egoeraz lagundurik edo bere nagusitasun nahia mantentzeko helburuaz egiten duela. Legezko presuntzio hau, faltak delituetan bihurtzea suposatuko luke eta erregimen arruntean, soilik, larrigarritasun orokor egoera bezala hartzen da, egilearen motibazioei, ekintzaren larritasun objektiboarekin neurrigabea den superprestakuntza bat emanez.

Zigor Kodeak 22.2 artikuluan nagusitasun-abusua larrigarritasun egoera bezala hartzen du, erasotzaile eta erasoia izan duenaren arteko indar desoreka bat ematen denean, samindua izan denaren babes-aukerak modu nabarmenean mugaturik aurkitzean; delitua burutzeko egileak aprobetxatu beharreko desoreka. Gehiago gaitetsi ahal den egoera hau, erantzukizunaren larrigarritasun batean itzultzen dena bera, ez dago subjektu aktibo eta pasiboaren sexuaren menpe, baizik eta menpekotasun egitate objektibo baten esku.

Sexuagatik egiten den diskriminazioa 22.4 artikuluan larrigarritasun egoera bezala dago, eta larrigarritasun hau, delitua burutzera bultzatzen duen zergatiaren arabera, portaeraren aurpegiratze haundiago batean oinarritzen da.

Baina bi zirkunstantzia hauek ez dira auresuposatzen, kasu zehatz bakoitzean bereiziak izan behar dutelako, eta legeagatik ez dira oso



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

kualifikatuztat hartzen, zigor-arloko garrantzia zehazteko orduan. Aurreproiektuak emakumearen gainetik gizonaren nagusitasunaren presuntziotik sortzen diren zigor-neurri zehatzak dituen einean, eta sexuagatik nagusitasunari edo diskriminazioari zigorraren asmo eraginkor bat onartzean, edo delituan falta soilen bihurketa, egitatearen erantzukizun ikuspuntutik neurrigabeak diren ondoriotara darama.

3.Larrigarritasuna, delitu hauek burutzen dituen egilearen arriskugarritasunean oinarrituko balitz, orduan, gizonaekoaren ezaugarri pertsonal soil batek borrokatuko luke zigorraren errekurtsoarekin, zein gainera, legaltzat sumatzen dena, eta ondorioz, burututako egite erantzukizunaren oinarria ere urratzen da.

**Aurrekotik ondorioztatzen da zigor-neurria, mehatxu eta bortxaketa arinen ekintzak gizonetik datozenetan delitu bezala tipifikatzean datzala. Ez da oinarritzen zuzengabe edo erruduntasun eduki handiago bati lotutako arrazoimenetan, baizik eta gizonaekoaren ezaugarriei buruzko arrazoi subjektiboetan eta honek, emakumearen gain duen ustezko nagusitasunean.**

**Horrelako ikuskera, autore zigor-Zuzenbidean guztiz sartzen da, “sentimenduaren jurisprudentzian”, boluntarista bera, arlo araugilean baino “herriaren iritzi ona” izena eman zaion horretan nagusitasun handiagoa duena. Ikuskera hauek, Kiel Eskolako berezkoak, argi eta garbi dago ez direla Konstituzioarekin bateragarri eta hau ez da Kontseiluak iragartzen duen zerbait, baizik eta Konstituzio Auzitegiak**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**Konsitutuzioa erruduntasun oinarri batetik hasten dela onartzen du eta, kasu konkretuan, erruduntasunaren garrantziarekin bat ez legokeen zigor ondorio bat, Konsitutuzioak modu kategorikoan ezarritako justizialioarekin ez dator ados.**

**Horrela, 150/1991 epaian, Konsitutuzio Auzitegiak (txostengilea López Guerra Jauna izanik) zera dio: “Konsitutuzioak *dударik gabe erruduntasun oinarria zigor-Zuzenbidearen egiturazko oinarri funtsezko bezala hartzen du. Beraz, ez litzateke konsitutuzionalki legezkoa, errudunaren pertsonalitatearen arabera eta ez egitateen egitean, bere erruduntasunaren arabera epaiak mugatuko lituzkeen “autore” zigor-Zuzenbide bat*” 65/1986, 14/1988 KAE, Konsitutuzio Auzitegien Epaien aipamena eta beste batzuk.**

Beraz, egitate objektibotik zerbait ezberdina gehitzen den zigor-beharketaren premisetan, eta kontuan izanik zerbait hori egile izateari gehiago lotzen zaiola, bere gizonezko ezaugarriari, zigorra egileari egile izateagatik zuzentzen dioen sistema batekin egiten dugu topo. Egilea burututako egitateagatik bakarrik zigortu daiteke eta honek duen seriotasunaren arabera, eta argi dago, egitate berdina ez dela larriagoa egilea gizona izateagatik eta biktima emakumea. Jokabide mota honek, erruduntasun oinarriarekiko eraso zuzen bat suposatzen du.

Baina gainera, adierazitako arrazoi konstituzionaletaz gain, egotzitako erregulaziora beste bi eragozpen zuzendu daitezke. Alde batetik, sistematikoa den ikuspuntutik, mehatxu-delitu arina mehatxu delituak tipifikatzen duen manu batera -171. artikulua- eramatea ez da ulertzen,





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

izan, mehatxua delitua ez den gaizki bat sortzean oinarritzen denean, zeren eta mehatxu arinak, delitua den gaizki bat sortzean ere oinarritu daiteke, soilik, gauzatzen den zirkunstantzien arabera, 169. artikuluko delitua gauzatzen duen mehatxuaren intentsitatea ez duela aurkezten.

Gainera, mehatxuaren zigorraren gogortasuna 48. artikuluan isladatutako zigor bat edo kautelazko neurri bat edo izaera berdineko segurtasun neurri bat hausten duenagatik burutzen bada, *non bis in idem* printzipioa haustera eraman dezake, kontuan izanik, zigorraren edo neurriaren haustea berez zigorgarria dela. Gainera, Aurreproiektuan 468. artikulua aldaketa bat sartzen da eta hain zuzen ere, asko jota, zigor edo neurri hauek haustearen kasuan kartzela zigorra ezartzean datza, honek, zigor-hauste larrigarria den delitu bat eratzea suposatzen duelarik.

### **e) Lesio-delituaren larriagotzea**

148. artikulua, gogorragoa den lesio tipo bat sartzeko asmoarekin, Aurreproiektuan berriztua izan da: *“4. Biktima emaztea izanik edo izandakoa izan, edo egileari afektibitate harreman analogo baten bitartez lotua dagoen edo egondako emakumea bada, nahiz eta bizikidetzarik ez izan”*.

148. artikuluan, biktimaren egoerari buruzko arrazoiengatik, lesio delituaren larrigarritasuna *“biktima 12 urte baino gutxiago balitu edo ezgaita balitz”* kasuan aplikatzen da. Larrigarritasunak pertsona hauen ahulezia handiagoa den eanean eta adin edo ezgaitasun egoerengatik babesgabe dauden pertsonengan aurkitzen du bere oinarria. Tipoak, berriz, baldintza



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

objektiboetan lan egiten du, biktimen gutxiagotasuna *ex legetzat* izanik eta erasotzailea nagusitasun abusuaren erortzean.

Aurreproiektuak biktima “*emaztea izanik edo izandakoa izan, edo egileari afektibitate harreman antzeko baten bitartez lotua dagoen edo egondako emakumea balitz, nahiz eta bizikidetzarik ez izan*” lesio delitua larrigarriagotzen duen eanean, **ex legetzat hartzen da baita emakumea, lesioa dagoen kasu guztietan, gutxiagotasun egoeran dagoela**. Modu honetan, nagusitasun abusuaren larrigarri generikoa, hipotesi normaletan kasu konkretuan aldi berean gertatu ezker aintzat hartu beharrekoa, aurreikusitako arauaz, biktima, beti, erasotzailearen emaztea edo ex-emaztea dela auresuposatzen da; harreman hau egoteagatik eta lesio delituaren gainean, erasotzailearen jokabidean zuzengabeko edo erantzukizun eduki handiago bat bereizi gabe eta kasua denean, 11. artikuluko ahaidetasun-inguruabar mistoa ezartzeari utzi gabe, ondasun pertsonal motako eraso hauetan, larrigarritasun egoera bezala lan egiten du.

Adingabe eta ezgaiak ez bezala, hauek objektiboki pertsona bereziki ahulak bezala hartu daitezkeenak, kasu guztietan ezin daiteke esan bere bikotearen esku eraso bat jasotzen duen emakumea ahultasun edo babesgabetasun egoera berezi batean dagoela. Hau aurretiko indarkeria egoera baten ondorio bada, bidegabe orokorra 173.2 artikulua osotasun moralaren aurkako delituaren bitartez balioetsia izan da, jakina denez, menpekotasun testuinguruan burutu izan ahal diren lesio delituen delitu parte-hartzean zigorra oztopatzen ez duena.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Beraz, **lesioen larriagotze tipoak ez du oinarririk ez bidegabearen ikuspuntutik, ezta erruduntasunekotik ere. Manua, emakumearen gutxiagotasunaren legezko presuntzio baten oinarritik soilik ulertzea dago, presuntzio hori bezala onartezina dena.** Beste kasu batean, menpekotasun benetazko egoera batean oinarritzen bada, bai 173.2 artikuluaaren tipoaren bidez, bai nagusitasun abusu baldintza orokorren bidez, sexu baldintzagatik diskriminazioa eta ahaidetasun mistoa, orduan, egileak burututako bidegabekoa, zigorraren bitartez nahikoa konpentsatua izan ahal da.

Edozein dela kasua ere, emakumearen babes handiagoa hemen ere ez legoke justifikatua, eta ez batzuetan gutxiagotasun edo ahulezia handiagodun egoera horretan emakume berari dagokionean baino egiaztagarriagoa den beste menpekotasun benetazko eremu edo arloetan.

Bestetik, berriro, diskriminazio positiboa bezala izendatutako oinarriaren arabera, gizonezkoaren erantzukizun penalaren larrigarritasunaren bitartez – tipo larrigarriagoaren subjektu aktibo bakarra - emakumea faboratzen da, honegatik, hemen, gorago adierazitako gaitzespenak errepikatu daitezke.

### **3. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren sorketaren gainean**

Zioen Azalpenak zera adierazten du: *“Espainiako tradizio juridikoarekin bat, zigor-ordenaren barruan espezializazio eredu bat aukeratu da, instrukzio epaileena, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren*



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

*arloko Epaitegia sortuz eta jurisdikzio-ordena berri baten sorketa aukera edo epaile ziliben partez zigor-arloko eskumenen onarpena baztertuz”*

Premisa honetatik aurrera, epaitegi hauek instrukzioa ezagutuko dute eta, kasua denean, emakumeen aurkako indarkeria arloko auzi kriminalen epaitza, halaber, erlazionatutako auzi zibilak. Bai batzuk, baita besteak ere, lehen auzialdian organo berean prozesu tratamendu objektua izatea lortu nahi da, beraz, osokoa, biktimaren babes handiagoan, berehalakoan eta eraginkorragoan datza, hala nola, indarkeria errepikatu edo indarkeriaren igotzea saihesteko baliabideetan.

Iadanik 2001eko martxoak 21ean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak onartutako txostenean, espezializatutako Epaitegien izatea beharrezkoa azaldu zen, baita arau-banaketen arrazionalizazioa, indarkeria fenomenoaren aurrean sistema judizialaren etekina hobetzeko asmoz. Gogoratu beharra dago, Familia Indarkeriari buruzko Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen R 13 (85)k, familia indarkeria gaiak bakarrik agintaritzat judizialeko eta instrukzioko kide espezializatuen edo baita ere epaitegi erabakitzaitileen esku uzteko aukera ikustea gomendatzen duela.

Honek zera esan nahi du: eredu antolatzaile konkretu bat loteslea ez izanik, ezta derrigorrezkoa ere, izan daitekeela beti ere, Botere Judizialaren 98. artikulura jota eta ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduko II Tituluaren (16. artikulua eta ondorengoak) I Kapituluari begira, berau Jardun Judizialen Alderdi Osagarriari buruzkoa, etxeko indarkeriaren zergatien ezagutza, organo jakin batzuei ematea eta bere lurralde-eremuko beste



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

batzuk baztertzea.

Hau dela eta, Kontseiluak positiboki balioesten du **espezializazio funtzional** baten ideia jotzea; hau bai, **gai ezberdina da, lehenik, organo espezifikoko batzuen sorketa eta espezializazio funtzional huts bat eta bigarren, eta orainarte esandakoagatik, alde baten sexuagatik jurisdikzio egoera berezi baten ezarpena; beraz, Aintzinako Erregimenaren berezko zerbait eta zorionez XIX. mendean zehar gauditua.**

Hain zuzen ere, kontuan hartu behar dugu jurisdikzio-ordena ezberdinak daudela, bakoitzaren berezko materien ezagutza, jurisdikzio bakoitz horien organo jurisdikzional ezberdinetara banatzen. Aurreproiektuak erreformatzen ez duen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 9. artikulua da, jurisdikzio-ordena ezberdinen arteko gaiak banatzen dituen, zigor-arloko ordenari zergatien eta epaiketa kriminalen ezagutzari lotua egonik eta ordena zibilari berezkoak zaizkion gaiak. Eta ordena jurisdikzional-zibilak beste ordena bati - hondar-jurisdikzioa – loturik ez dauden gai guztiak heltzen dituen bitartean, zigor arloko jurisdikzio-ordenaren lehentasunak, Botere Judizialaren Lege Organikoko 10. artikuluaekin bat, jurisdikzio honek beste ordena jurisdikzional baten berezko gaiak ezagutu ahal izango dituela zehazten du, soilik epaitu aurreko kasuetan. Edozein dela kasua ere, jurisdikzioa luzaezina da.

Honekin bat, zigor-arloko ordena-jurisdikzionalen epaileak bakarrik zigor-arloko gaiak ezagutzen ditu eta soilik beste ordena jurisdikzional baten berezko gaitako zigor-arloko prozesuan arazo kaltegarri bat bezala



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eragina duenean. Hala ere, Aurreproiektua harago doa emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia izendatutako zigor-arloko organuari ordena-jurisdikzional zibilaren berezko gaiak esleitzean, ez aurre epaiketa izaeraz baizik eta funtsezko izaeraz. **Beraz, jurisdikzioen nahasketa antzeko baten aurrean gaude, eta emaitza bezala jurisdikzio berezi bat duena, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jurisdikzioa hain zuzen ere, zigor-arloko eta zibileko aspektuak -eta hauek izaera ezberdinekoak- elkartzen dituen hibrido bat berau eta guzti hau bere erabakietatik lan-arloko ondorioak zein ondorio juridikoak bistatik galdu gabe (ikusi 18. artikulua).**

Kontuan izan beharra dago, Epaitegi mistoen eredu tradizionalaren izateak, Lehen Auzialdiko eta Instrukziokoa, ez duela jurisdikzioen nahasmendua suposatzen. Epaille bakarra, arlo zibilean Lehen Auzialdiko epaille bezala jarduten da edo Instrukziozko epaille bezala zigor-arloan, baina ordena-jurisdikzionalak argi banatuz, nahasketarik gabe.

Ongi ba, diseinu organiko-judizialaren ikuspuntutik, organigrama judizialeko diseinuaren zentzuduntasunak organo judizialak antolamendu juridikoaren adarrak, instantziak eta prozesuko mailak edo gai zehatz baten espezializazio funtzionalaren beharra kontuan hartuz sortzearen beharra dakarrela nabari daiteke.

Espezialitate funtzional ideia horri buruz, epaitegi hauen sorketa partekatu daiteke, Familiakoa, Adingabeena edo Espetxeratuen Zaintzarako iadanik daudenak bezala. Baina, orain erabilitako espezializazio irizpidea ez da antolamendu edo materia adar batena, baizik



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eta zigor-arloko ordenaren barruan, helburu politiko bati -emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatu- dagokion espezializazio bat sortzen da, biktimaren sexua eta erasotzailearen gogoia edo asmoa oinarritzat hartuz.

Gainera, Aurreproiektuaren aurreikuspena Memoria ekonomikoaz bat, hirukoitza da, hiru irtenbide hartu ahal izanik:

- guztira eraikuntza berriko 21 Indarkeriaren arloko epaitegi berri eraikitzea, lan-kargak horrela gomendatzen duen herrialde haietan eta gai horretan eskusiboki lan egingo luketenak.
- baita ere erabateko arduraldiaz iadanik badauden epaitegiak, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko epaitegietan eraldatzea. Hau eraikuntza berriko bat behar ez denean egingo dena eta azkenik
- iadanik badauden Instrukzioko edo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaitegiak bateragarri egitea

Nabarmendu beharra dago ekimen informatua ez doala neurri honek antolamendu judizialerako suposatuko duen ideia emango duen azterketa estatistiko batekin batera. Benetan zenbat eraikuntza berriko organo sortu behar diren ez jakina da, ez jakina da baita nola eragingo duten instrukzioko epaitegietan eta batez ere, iada dauden Familiakoetan eta, kasu honetan, eskumen hustura bat emango den gai masibo edo mugatuen aldatze baten bitartez. Era berean, ez da kontuan izan lege honekin zigor-arloko bideak “dei-efektu” bat izatea bultzatuko duen, familia auzien gogoetan edo lan-efektu eta funtzionarioetan dei-efektua baino efektu biderkatzaile batean pentsatu daiteke.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**Edo beste era batean esateagatik, pentsatu daiteke baita auzi zibilen kriminalizazioa, efektu funtzionarialak eta laboralak, organo hauen eskumen zergati bat sustatzea ekartzen duena, gehi testu informatuak gordetzen dituen espezialitate prozesalak, eta guztia sexuagatik mugatutako jurisdikzio baten aurrean dagoelaren ideian oinarriturik, pentsatu daiteke, diogu, guztiak ez ote duen distortsio sakon bat eragingo planta judizialean.**

Zentzu honetan, gogoratu beharra dago sistemaren logika dela lehenengo arau funtsezkoa (izan zibila edo zigor-arlokoa). Honen arabera prozesuak itxuratzen dira -hemendik Zuzenbide Prozesalaren osagarritasun zentzua- eta premisa bi hauen arabera epaitegi eta auzitegiak antolatzen dira.

Hala ere, kasu honetan, erreforma batez ere, biktima emakume bat indarkeriaren objektu deneko zergatien tratamendu judizial osoaren ideia baten oinarritzen da. Oinarri honen arabera lehenengo tresnan pentsatzen da -epaitegiak- edukia emateko eskumen eta espezializazio arauak aldatzen dira eta hau, azken batez, familia auzietan erabilgarriak diren arauen funtsezko izaerara iritsiko da. Organo hauek zigor-arloko antolamenduaren barruan espezializazio bat bezala itxuratzean -horrela dio Zioen Azalpenak- organo hauen eskumen diren materia zibil guztiak beraien izatasunean itxuragabetzen dira.

Epaitegi hauen eraketak gainera, laudagarriak ez diren zeharkako ondorioak eragiten ditu. Organo judizial batek izan behar duen





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

inpartzialtasun itxura estatusunean jartzen da, emakumearen babes funtzio bakartzat duen organo batek gizonarentzat inpartzialtasun zalantzak izan ditzazkeelako, zeren eta organo hauei ematen zaien itxura ez da Justizia inpartzialtasunez ezartzeko, baizik eta gizon-emakume harremanen patologia zehatz baten aurka borrokatzeko, zein 1.2 artikulua zehazten duen erasotzailearen gogoan itzultzen den eta zeinen aldiberekotasuna soilik susmatzera heldu daitekeen. Datu hau garrantzitsua da zeren eta erasotzaileak ez badu emakumea diskriminatze asmoz edo beregan duen botere erlazioa mantentzeko gogoz erasotzen baizik eta mendeku gogoz edo haserrealdi edo jeloskor izateagatik, gertaera berdine horiek beste epaile batzuk epaituko dituzte edo nahiz eta epaile bera izan, beti beste prozedura batzuen arabera egingo du.

Atal honekin bukatzeko, azpimarratu beharra dago horrenbeste aipatutako 27/2003 Legean iadanik guardiako eginkizunetan diharduen Instrukzioko epaileei, izaera zibileko neurriak hartzeko aukera ematen zaiela (ikus 544 artikulua ter 5 eta 7 Prozedura Kriminalaren Legea). Aurreikuspen hau hurrengo irizpideetatik egiten da:

- Eskumena ez da diseinu eta sorrera berriko organo batzuen baizik eta dagoeneko existitzen diren horienak.
- Denbora mugaketa dago, hartu daitezkeen neurri zibilen gainean eta baita neurri motari dagokionez.
- Erregimen guzti hori etxeko indarkeriari buruzkoa da, biktimaren sexua diskriminatu gabe eta erasotzailearen asmoa kontuan izan gabe.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Aldiz, testu informatua ondorengo honen bitartez bereizten da:

- Dagoen erregimenarekiko erregimen paralelo bat sortuko du, bata bestearen gainean jartzeko arriskuaz.
- Organo judicial mota berri batean oinarritzen da, hasiera batean Instrukzioko epaileetatik kanpo.
- Indarkeriaren biktima izandako emakume bati buruzkoa da soilik eta 1.2 artikuluko baldintzetan.
- Delitu gehiagotan aplikatzen da eta epaile berrien eskumen zibilen bereganatzea orokortzen da; egoeraren arabera izan behar ez duten neurriak.

**Azken finean eta esan bezala, testu informatuaz, 27/2003 Legearen aplikazioaren esperientzia ebaluatzetik urrun eta beregain erabaki arauemaileak hartuz, alde batetik, hau gainditzea aukeratzen da (epaile berriak, eskumen gehiago, eskumen zibilen jeneralizazioa), baina aldi berean, (soilik emakumeentzat) mugatu egiten da, konfuzionismo prozesal eta eskumeneko ikuspegi kezagarri bat sortuz. Arrazoi hauengatik hausnarketa handiago bat iradokitzen da eta berriz ere ekimen informatuaren beste gogoeta bat egitea.**

#### **4. Eskumen-banaketa arauen gainean**

##### **a) Zigor-arloko eskumenen ematea**

Aurreproiektuaren 33. artikulua bitartez Botere Judizialaren Lege



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Organikora 87. artikulua berri bat eransten da, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak deitutakoei eskumena emateko. Korrelatiboki, aipatutako Lege Organikoaren 87. artikulua eta Prozedura Kriminalaren Legeko 14. artikulua erreformatzen dira, helburua, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien eskumen diren kausak bideratzeko eskumena instrukzioko epaileari kentzea izanik.

Eskumen eskuduntza honen ideia nagusia, delitu jakinen ezagutza -erailketa, abortua, lesioak, fetuari eragindako lesioak, askatasunaren aurkako delituak, torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delitu batzuk, askatasun eta sexu-nortasuna edo indarkeriaz edo larderiez burututako beste edozein delitu- ondorengo honen arabera ematean datza: *“edozeinen aurka burutu izana edo bere emaztea izanik edo izandakoa izanik, edo egileari afektibitate harreman antzeko baten bitartez lotua dagoen edo egondako emakumea balitz, nahiz eta bizikidetzarik ez izan”*. Baina soilik *“emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Neurrien Osoko Lege Organikoaren 1go artikulua adierazitako emakumeen aurkako indarkeria arloko ekintzen kausaz”* jazotako kasuetan, Prozedura Kriminalaren Legeko 14. artikulua aurreikusitako bere 5. atalak ezartzen duenaren arabera. **Hau da, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiek eskumena jasotzen dute, hurrengo hipotesi hauek biltzen badira:**

**1go Ezarritako kasuetan, gizonezkoa subjektu aktiboa izatea eta emakumea pasiboa.**

**2. Zerrendatutako delituak *“diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonezkoek emakumeekiko duten botere harremana***



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

***mantentzeko” burutuak izatea.***

Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak delitu hauen instrukziorako eskumena onartzen du, Epaile arruntari, hau da, intrukzio Epaileari ebatsiz, eta falta zehatzen ezagutza eta epaitzarako eskumena ere onesten du. Honek gogoeta egitera garamatza, lehenik, eskumenaren esparru objektiboari buruz eta, bigarrenkoz, delitu hauen instrukzioa ohiko instrukzio Epaitegietatik ezberdina den organo judicial berri bati emateko zergatiak dauden edo ez gainean.

Lehenengo ikusten dena da eskuduntza objektiboa **ez dela materiaren arabera egiten, baizik eta subjektu aktibo eta pasiboaren sexuaren arabera, zeren eta materia, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko epailearen ezagutzari egotzitako delituen mota, instrukzio Epaileari indarreko legeak ematen dionaren berbera da, honek zentzudun gutxiko efektuak emanez, adibidez, giza hilketa delitu baten instrukzioa berbera da delitu horren biktima zein den izan zein izan.** Instrukzio Epaitegiak transmititzen duen inpartzialtasun objektibo itxura, berau zigor-arloko prozesuko fase batetik deitura hartzen duena, giza hilketa delitu baten instrukzioa bere izena arrazoi funtzionalengatik hartzen ez duen baizik eta delituaren subjektu aktibo eta pasiboaren kualitate pertsonalagatik hartzen duen Epaitegi bati ematen zaionean desegiten da.

Aurreikuspen legala Adingabeen Epaitegira joanez justifikatu daiteke:



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

adingabeak burututako erailketa beti da berdina baina konparaketa-termino hau Adingabeen Epaitegiak egotearen zergatia Konstituzioko 25. ex artikuluan dagoela kontuan hartu ezkerro desegiten da, adingabearen - egiten ari den pertsona- berreskurapenera joateko beharrea eta hemendik dator arlo-penologiko, tratamenduzko eta berreziketa espezialitate bilduma bat egotea. Informatuaren kasuan, zigorraren larrigarritasunetik kanpo, hauek horrela izanean berdinak dira. Azken finean, guztia biktimaren sexuaren arabera egiten da eta, berriz diogu, ez dago arrazoi horregatik organizazio judicial bat justifikatu ahal duen oinarririk, era berean arraza, ideologia edo siniskera arrazoiengatik ez dagoen bezala eta azken batez, Konstituzioaren 14. artikuluko inolako berdintasun estanda bakoitzetik datorrena bezala.

Eremu objektiboari dagokionez, horrenbeste interpretazio-arazo sortu dituen eta Aurreproiektuko 1go artikuluan azaltzen den delituen berezko edukiaren parte diren eta modu zail batean hartu daitezkeen delitu batzuk barnean sartzen dira. Adibidez, zaila da eta maltzurra erailketa edo abortu bat *“diskriminazioa, ezberdintasuna eta gizonezkoek emakumeekiko duten botere harremana mantentzeagatik”* burutzen dela pentsatzea. Baina, **errealitate kriminologikoan motibazio berezi hura, nahiz eta gertatu eta prozesu batean frogaketa zaila izan, adierazitakoak bezalako delituaren irudi jakin batzuetan ez da aurkezten eta praktikan epaitegi hauen ezereztasunera eraman dezakeena, asko jota emakumearen heriotza eman bada, eta kasu honetan legea bere oinarritik jauziz, aplikaezina bihurtzen da, zeren eta ez da egongo iada eta zoritxarrez inolako indarkeriari buruz ohartarazi beharrik (testu informatuaren 1.1 artikulua). Kasu hauetan, zein da eskumena duen epailea?**



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Baina eguneroko errealitatearen kasurik gehienetan ez dagoen intenzionalitate horretaz gain, eta egon arren, ongi ezaguna da delitu baten elementu subjektiboak prozesuan soilik froga adierazleaz egiaztatuak izan daitezkeela, egindako frogaren analisiaren ostean epaile epai-emailleak egiten duen arrazoibide logiko-dedukziozko baten ostean. Ikuspuntu honetatik, **emakumeen aurkako Indarkeria Epailearen eskumena subjektu aktiboaren motibazio berezi horren aurre egiaztapenaren menpean dagoen neurrian eta hau soilik ahozko epaiketaren ostean hautemangarria izango denez, praktikan, ezinezkoa izango litzateke auzia bideratzeko Indarkeria Epaileari eskumena ematea; edo beste modu batean esateko: epaia eman arte ezin daiteke jakin izapidea eskudun epailearen aurrean jarreitu den, izatekotan gogo horren aldiberekotasuna sumatzen dela onartu ezin delarik. Eta arazoa da eskumena ez dela irizpide objektiboekin ematen, baizik eta egilearen asmoaren arabera.**

Aurrekoaz gain, eta zehazki eremu objektiboa aztertuz, harreman horretan ez du zentzurik tortura-delituak gehitzea, tortura, teknikoki, *“agintariek edo funtzionario publikoek, beraien kargu-abusuarekin eta aitortza edo informazio bat lortzeko helburuaz”* burutzen duten delitua den momentutik, Zigor Kodeko II. Liburuaren VII. Tituluko osotasun moralaren aurkako beste delituak barne hartzeari utzi gabe eta Legearen aplikazio eremuaren barruan ematen diren guztietan.

Ez du zentzurik ezta emakumean indarkeriaz edo larderiaz



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

burututako delitu guztiak sartzea zeren ez da oso ongi ulertzen zer nolako harremana duen lege honen helburuaz hauetako zenbait delituek, adibidez, norberaren eskubidearen hautazko burutzea, indarkeria edo larderiaz lapurreta, estortsioa eta abar bezala.

Beste alde batetik baina era berdin batean kritikagarria da, auzitegi hauen eskumen esparruaren barruan familiar harremanen aurka doan edozein delitu dela eta egiten den instrukzioa barne sartzea, instrukzio hau, soilik, biktima emakumea izatean oinarritzen bada, zeren eta -jakina den bezala- XII. Titulu horren barruan, ezkontza ilegaleko delituak barne sartzen dira, hala nola, erditzea gertatu dela sinestaraztea eta aitatasun alterazio, adingabearen egoera edo baldintza, zaintza eginbeharren urratzea eta adingabeak etxebizitza bertan behera uztera eragintzea eta familia bertan behera uztea, adingabeak edo ezgaiak.

Azken finean, emakumeen gauzatutako indarkeriaren arloko Auzitegiek egin behar dituzten izapideten gaineko delituak, delitu arruntak dira eta ez dute inolako berezitasunik aurkezten beraien ikerketa eta instrukzioari dagokionez, Instrukzio arrunteko Epaileari eratzikitakoak baino. Eta kautelazko neurrien ikuspuntu honetatik hartuta instrukzioko Epaileak konstituzio eremuen barruan, bere adopzioarako ahalmen osoa dauka.

### **b) Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Epaileari *vis atractiva* bitartez ematen zaion eskumen zibilen atribuzioa**

Ez da zerbait berria indarkeria arloan zigor-arloko epaileak funtzio zibilak hartzea; hau da, azken batez, 27/2003 Legearen aurka hasitako



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eredua. Beste alde batetik, orain ematen den jauzia kualitatiboa da. Eredu berria – gorago adierazi den bezala- aukera hori arrunt bilakatzen du eta, honetaz gain, izaera zibila duten gaien ezagutza zabalena izateaz gain, ez da soilik egoeraren araberakoa edo kautelazkoa.

Modu honetan, Indarkeria epaitegiei esleitzen zaizkien orden zibileko gaiak era askotakoak dira, “ahal izango dute” espresioa beste alde batetik zentsuragarria izanik, zeren eta iruditu daiteke aipatutako epaitegi hauen ahalmenekoa dela gai hauei buruz ezagutza izatea edo ez. Kasua edozein dela ere, emakumean gauzatutako indarkeriaren jakinbidetik aurrera eta aurreproiektuaren objektutik aurrera ( ikusi 1 artikulua berriz ere) ez da era erraz batean ondorengo gai hauen atribuzioa ulertzen, hala nola, filiazioa, amatasuna eta aitatasuna, ezkontza gaien ebazpen eta erabaki eklesiastikoen eraginkortasun zibila duen onarpena, guraso eta semeen arteko harremanak orokorrean, familia transzedentzia jarrera duten neurrien adopzio edo aldaketa helburutzat duenak, lege berean era oso batean erlazionatzen ez direnean eta ezta Prozedura Zibileko Legearen beharrezko aldaketa ere ematen ez denean eta guzti hau, nahiz eta 87 ter artikulua 3. atalak jasotzen dituen baldintzak aldi berean emanda ere.

Nolanahi ere, faltan botatzen da edo susmatu daiteke, beste gai batzuen gainean erreferentzia ezak sortuko lukeen eragin kaltegarria, nahiz eta hauek legeak duen helburuagatik eraginduak ez izan, transzedentzia berezia dute, hala nola seme eta alaba adingabeen zaintza eta babespena den bezala, edo seme eta alaba adingabeen izenean aita-amek bata bestearen aurka eskatutako mantenuko epaiketa.





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Kontuan hartu behar da beste alde batetik, manuak gainera arazo garrantzitsuak konpondu gabe uzten dituela, hala nola emakumearen gainean gauzatutako indarkeriaren Epaileak eskumen zibilaren hasierarekin eta hau galtzearekin erlazioa duten arazoak. Epaile naturalak duen eskumena legearen bitartez aurretik zehaztua dator eta hau espainiar antolamendu juridikoaren funtsezko oinarrietako bat da (Konsituzioaren 24.2 artikulua). Beraz, Indarkeria epaileari bakarrik eskatzen baldin bazaio edozein delituren instrukziorako eskumena hartzea edo 87 ter artikulua jasotzen dituen arlo zibil gaietako bat edo beste epaitzea, emakumean gauzatutako indarkeriaren ekintza baten ondorioz emandako delituagatik edo faltagatik “hasiera izan duen” zigor-penaleko prozesu bat izan bada, edo babes ordena bat hartu baldin bada, **batera edo bestera hurrengo honekin topo egin dezakegu: eskuduneko epailearen hautaketa aldean esku geratzeko aukera, kasu honetan ustezko biktimaren esku, zeren eta zigor-arloko instrukzio baten hasiera soilak salaketa bat aurkeztearen ekintza berari erantzuten dio.** Guzti hau, testu informatuak ia berehalako era batean zigor-arloko eginbideak agiritegian gordeak izango direla zirkunstantziaren aukera aurreikusi gabe edo, aurrerago, prozedura artxibatua izango dela, behin-behineko era batean barne.

Kasu hauetan, zer gertatuko da epailea bideratzen ari den prozedura zibilekin, hauetako edozein egoera ematera heltzen bada?. Teorikoki Indarkeriaren arloko epaileak kausa zibil guztiak ezagutzeari utziko lioke, 87. ter.3.c artikulua berriaren hipotesi egitatea faltan izateagatik eta honen ondorioz, arlo zibileko gaien gutxi gomendatutako aldaketa batera bertaratuko ahal ginateke, adibidez, Familia epailetik Indarkeriaren aurkako epailera doazenak eta azken hauetatik, berriz ere, Familiakora.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Espezializazio honen behar izana ez izatea frogatua geratzen da gai horien zergatien ezagutza Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaile batek duenean eta era berean Indarkeriako eginkizunak ere hartzen dituzenean: gai aldaketa beraz “bere buruarekiko” izango da.

Beste alde batetik ere galdetu beharra legoke ze puntutaraino den nahikoa epaileak egoki uste duenean ekintzak organo judizialera igortzea, “era nabarmen bateaz” egitateek ez dutela emakumean indarkeria espresiorik errepresentatzen antzematen duenean, zeren eta espresio horren indefiniziotik aparte, ez da argi geratzen ezta ere, igorpena lege honen objektu gaiarekin egitateen harreman falta egiaztatzen den edozein unetan egin dezakeen edo ez, batez ere Aurreproiektuaren 1go artikularen doitasun eza dela eta.

### **c) Eskumen objektiboaren bat bateko galeraren gainean: epaile arrunta izateko eskubidea.**

1go artikulua *“emakumean indarkeria ekintzak gauzatzen direnean eskumen objektiboaren galera”* arautzen du, Prozedura Zibileko Legeari 49 bis artikulua berri bat gehituz. Gai konkretu honen gainean, neurriak, legeak aurretik zehaztutako Epaile arruntaren eskumenarekin topo egin dezakeela posible ikusten du. Honela, kontuan hartu beharra dago Auzitegi Konstituzionalak 47/1983 Epaietik aurrera adierazita duela, Konstituzioko 24.2 artikuluan onartzen den epaile arrunta izateko legeak zehaztutako eskubide konstituzionalak organo judiziala lehenik arau juridikoaren bitartez sortua izatea eskatzen duela, honek ekintzaren egitate eragingarriaren aurretik nahiz eta prozedura judizialaren aurretik jurisdikzioz eta eskumenaz



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

kargua ematea eta bere erregimen organiko eta prozesalak ez diezaiola utzi organo berezi edo ohi kanpoko organo bezala bere burua jotzea. **Hori dela eta, eskumenaren eskuduntza eman ostean gertatutako ekintza batek iadanik epailea ezagutzen hasi den gaia berorri kentzeko balio izanez gero, zehaztutako Epailea izateko eskubidea urratua geratuko litzateke.**

Zergatiak ondorengo hauek dira:

Lehenik eta behin, askoz zuzenagoa da, legez organo bat beste baten alde inhibizio prozesu jokabidea dagoen baldintzazko egoeretan, gaia lehenik ezagutzen ari zen epailearen alde egitea egokiago ikusten da, zeren eta beste modu batean egingo balitz, helburu berdinarekin baina beste organo judizial baten aurrean eta gerokotasunez beste ekintza berri bat sustatzea nahikoa izango litzateke lehenengoa kargutik enkaitzea lortzeko. Honela, adibide gisa, Prozedura Zibileko Legearen 79. artikulua gaur egungokoagoak diren prozesuak askoz antzinagokoak direnekin pilatuko direla ezartzen du, antzinasuna eskaeraren aurkezpen datarekin finkatuz. Gaur egungokoak diren gaiak pilatzen direnak izatearen zergatia argia da: kontrakoak, aldeei organo judizialaren eskumena izateko baimena emango lieke.

Ongi ba, Aurreproiektuak (38. artikulua) Prozedura Zibileko Legeari 49 bis artikulua berria gehitzen dio eta honen bitartez “ *Epaile bat edo auzitegi bat, arlo zibileko prozedura baten gainean ezagutza jasotzen ari denean, Lege Organikoaren 1go artikuluan azaldutako puntuetan, berau Emakumean gauzatutako Indarkeriaren aurkako Osoko Neurriei buruzkoa,*



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

*emakumean gauzatutako indarkeria ekintza baten komisioren berri izango balu, eta honek zigor-arloko prozesu baten hasierarako aukera eman badu edo babes ordena baterako bidea izan bada, 87 ter artikuluan, Botere Judizialaren Lege Organikoa 3. parrafoa, aurreikusitako baldintzen aldi bereko ematea egiaztatu ostean, inhibitu beharko da, autoak dauden egoeretan, eskuduna den Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaileari igorritz". Hau da, dagoeneko aurretik gaia ezagutzen ari den epailearen inhibizioa xedatzen da gaur egungokoagoa den Epaile baten alde **egitate berri baten arazoia dela eta**, prozesuen aldi bereko gertaeraren arazo hauen ohiko konponbide aldatuz.*

Egia da emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren jurisdikzio eta eskumena, hauek eragintzen dituen ekintza egitatearen aurretik edo prozesu judizialaren aurretik zehazten dela, baina Lehen Auzialdiko Epaitegiaren arabera, ostean emandako egitate baten ondorioz sortutako eskumenaren galerak, azken batean gaiaren gainean ezagutza izan behar duen epailearen zehaztugabetasun baten balio bera dauka, eta ikuspuntu honetatik begiratuta **Legeagatik zehaztutako Epaile arrunta izateko eskubidea kontraesanetan erortzen da, zeren eta behin-behineko era batean soilik zehaztuta egongo litzateke edo modu baldintzatu batean, arlo zibileko eskumena erabakigarria izango litzatekeen baldintza bat ez emateari lotua egongo litzatekeen bitartean- indarkeria duten ekintzen gauzatzea- azken instantzian, egilearen borondatearen menpe dagoena.**

**Baldintza hauetan, Aurreproiektuaren 38. artikuluan isladatutako erreformak argi eta garbi legeagatik zehaztutako epaile arrunta izateko**



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**eskubidea urratzen du ( Konstituzioaren 24.1 artikulua).**

Eta bigarrenik, kontuan hartu beharra dago 49 bis artikulua horrek **eskumenaren galera** suposatzen duela, eta honek aldi berean **mugiezintasun judizialean** eragina duela. Berdina da Epailea bere gaiari buruzko ezagutza kentzeko mugitzea edo eta epailea mugitu gabe, ezagutza hori kentzea aldi berean hasierako eskumen hori kenduz. Adibide gisa, banaketaren prozesu judizialaren eboluzioarekin konforme ez dagoen senar batek bere emaztearen gain edozein indarkeria ekintza burutzen badu, Epailea gaiaren ezagutzatik aldentu ahal du. Eta kontrako zentzu batean, emazteak arlo zibileko gai hori Indarkeriaren aurkako epailearen forora eraman dezake, soilik salaketa bat aurkeztearren edo babes ordena baten eskaera egiteagatik.

Azkenik, hurrengoa planteatzen da: zer gertatzen da Indarkeriaren arloko epaileak ezagutuko lituzkeen arlo zibileko auziekin honek bere ekintzak hasten dituenean auzi horiek iadanik bigarren instantzian daudenean? Hasiera batean ez litzateke beharrezkoa izango Indarkeriaren arloko epaileak inolako inhibizio eskakizunik Lehen Auzialdiko epaileari egitea, honek funtzionaltasun eskumenik ez izateagatik. Hala ere, Prozedura Zibileko Legearen 49 bis 1 eta 2 artikulua berrian “epaile edo auzitegiari” buruz hitzegiten du, gero, “auzitegiari” erreferentzia horrek Probintzia-Auzitegi bat – apelazio organua bera- inhibizioz eskatua izateko aukera egongo litzatekeela adieraziko lukeela dirudi, gero eta Indarkeriaren arloko epailearen alde inhibitu beharko da; ongi ba, nahiz eta harrigarria izan, honelako aukera bat posible al da benetan? eta nahiz eta horrela izan, honek Indarkeriaren arloko epaileak lehen arlo zibileko instantzian



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

emandako epaia berrikusi ahal izango duela esan nahi al du?. Mutur hauek azalpen baten premia behar dute.

### **d) Judizio azkarrak, guardia Instrukzio-epaileak eta Indarkeriaren arloko epaileak**

Gorago esan den bezala, eredu informatuak begi bistakoak diren disfuntzioak sortzen ditu. Hain zuzen ere, egia da Seigarraren Xedapen Gehigarriak, Aurreproiektu informatua indarrean sartu izanetik sei hilabeteko epearen barnean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko epaitegi berrien izateari guardiako zerbitzuak egokitzeko erregelamendu bat emango duela aurreikusten dituela. Ongi ba, hemendik gutxienez legegileak, Kontseilu honek egingo duen erregelamendu garapena itxaron gabe konpondu beharreko bi arazo sortzen dira.

Lehenik eta behin, “judizio edo epaiketa azkarrak” deitutakoen prozedura (Prozedura Kriminalaren Legeko IV. Liburuko III. Titulua) instrukziorako aplikagarria suertatzen da eta baita “*Zigor Kodeko 173.2 artikulua aipatzen dituen pertsonen aurka gauzatutako lesio-delituak, bortxaketa, mehatxuak edo eta ohikoa den indarkeria fisiko nahiz eta psikologikoa*” epaitzeko ere, [795.1.2a, a) Prozedura Kriminalaren Legea]; honetaz gain, Prozedura Kriminalaren Legeko 14.3 artikulua delitua burutu den lekuko guardiako Instrukzio epaileak Prozedura Kriminalaren Legeko 801. artikulua azaldutako hitzekin bat datorren adostasun epai bat emango



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

duela aurreikusten du. Beste alde batetik, testu bereko 962.1 artikulua Zigor Kodeko 620. artikuluan ezarritako falten berehalako epaiketa xedatzen du, beti ere azken kasu honetan, ofenditua Kode berdineko 173.2 artikulua aipatzen dituen pertsonen arteko bat den bitartean. Eta azkenik, ez da gomendagarria delituagatik edo faltagatik egiten diren aipatutako judizio azkarren tramitazioa, guardia funtzioan dagoen Instrukzio Epaileen bitartez egiten dela ahaztea (Prozedura Kriminalaren Legea, 797. artikulua eta ss eta BJKNko Erregelamenduaren 40.1 artikulua, berau Jardun Judizialen Alderdi Osagarriari buruzkoa).

Bigarren puntu batean, legegileak kontuan hartu behar du, 27/2003 Legean aurreikusitako **babes ordenaren** sistemak, guardia funtzioetako Instrukzio Epaitegiaren berehalako jokabidean euskarria duela eta hau aldi berean eta zuzen zuzen biktimari erantzun bizi eta azkar bat emateko beharrekina erlazionaturik dagoela. Egiaztapen hau, beharrez, Indarkeria arloko Epaitegien antolamenduan ondorio ezberdinak hedatu beharko ditu, nahiz eta arazo hau Aurreproiektuaren 42. artikuluan ezarritakoarekin konpondu gabe geratu, eta nahiz eta arazoa Aurreproiektu berak Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren bere 3. atalaren bidez barne sartzen duen Botere Judizialaren Lege Organikoko 81.1 e) artikulua berriak ere konpondu ahal ez izan.

Esandako guztiak zera adierazten du: Indarkeriaren arloko epaileen eskumen litzatekeen esparru honetako prozesuen zati garrantzitsu bat, benetan, delituagatik eta faltagatik egindako judizio azkarren bideetatik bideratuak izango direla, eta, hori dela eta, guardia funtzioetan dauden Instrukzio Epaitegien bidez. Aldi berean, hau Aurreproiektuak Emakumeen



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien arauketarekin aurreikusitakoaz bateraezina gertatu daiteke, **beraz, ondorioztatu beharra dago, etxeko indarkeria izan duten kasu tipikoak berez gertatu diren lekuko guardia epaileak premiazko eginbide horien bidez bideratuko dituela.**

Gaur egun arlo zibileko prozesua gidatzen duten ahozketasun-printzipioak, kontzentrazio hastapenak eta berehalakotasun oinarriak kontuan izanik, kasua ezagutzen ari den epaileak ezin du inhibitu Indarkeriaren arloko epailearen alde, zeren eta behin ahozko epaiketa saioak hasita, epaia emateko eskumena duen bakarra bera da, jardun izandako guztiak eraginkortasuna galdu izan ezik eta honek dakarren behar ez bezalako atzerapenarekin. Eta, benetan egia dena da, ezertarako ere ez dela Indarkeriaren arloko epaileak bere gain etengabeko guardia hartzea aurreikusten, nahiz eta Seigarren Xedapen Gehigarria kontuan hartuz egokitzapena egin behar arren. Hau dela eta -organu berri hauen mugagabeko sorkuntza politika bat aukeratu ezean- zertarako balio dute legearen espezialitateak kasu horietan, azken finean, eskumena, Indarkeriaren arloko epailearena izango ez bada?.

49 bis artikulua berriko 2. atalean ( Aurreproiektua 38. artikulua) aurreikusten den agertzeak ere arazoak sortzen ditu, non epailea ikusle soil bat bezala bihurturik geratzen da eta, edozein dela kasua ere, prozesalak diren formalitate zehatz batzuen bermatzaile gisa, hori dela eta inolako erabakirik hartu beharrik gabe. Bai, aldezturik azaldu den bezala, erreforma Judizialaren esparruan, Fiskaltzari eskumen handiagoak ematea nahi da, zeren eta, zentzudunagoa dirudi agertze hori era zuzen batez bere aurrean aurkeztea, azken finean, zentzuzko diren epeen barne finkatzeko,





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

edozein kasutan laburrak hauek, eta salatza zuzendutako indarkeria izan duten ekintzak edo babes ordena bat eskatzeko dagokion erabakia hartzeko.

Gainera, arlo Zibileko Prozedura Legearen 49 bis 2 artikuluko berri horrek zera esaten du; emakumeen aurkako indarkeria kasu baten ezagutza duen arlo zibileko epaileak, ezagutzen dituen gaietatik ondoriozta daitekeena, Fiskalaren ezagutzapean jarriko du eta honek horren ostean eta bere aldetik *“berehalakoan erabaki beharko du hurrengo 24 orduetan emakumeen aurkako indarkeria ekintzak salatzen dituen edo eskumena duen Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Epaitegiaren aurrean babes ordena bat eskatzen duen”*. *“Berehalako izaeraz”* bada -pentsatzeko denborarik izan gabe beraz- zer nolako zentzua dauka fiskalari esatea berehala erabaki beharko duela hurrengo 24 orduetan zer egin?.

Arau berdinean, ordena zibileko epaile eta auzitegien arteko eskumen gaietatik araubide orokorra indargabetzen da, konkretuki alde ezberdinei nahiz eta Fiskaltzari entzunaldirik ez emateko. Honek zera suposatzen dezake; Konstituzioaren 24.1 artikuluko aurkako defentsarik gabeko egoerak suertatzea, kontuan hartu gabe premiako egoera ezberdinengatik momentu zehatz batzuetan legearen esparruaren barruan zenbait materia jakinen eskumena hartzea beharrezkoa izan daitekeela ulertu ahal izatea, baina kasu honetan dagokion errekurtsioa baimenduz edo epailea ondorengo neurri- berrespen bat egitea behartuz, aldean alde aurreko entzuteaz.



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**e) Biktimaren helbidea kontuan hartuz, zigor-arloko lurraldearen araberako eskumena**

Zigor-arloko materiaren gainean eskumen atribuzioaren irizpideen funtsezko aldaketa bat ematen da. Ondo jakina den bezala, **lehentasuna duen forua, Prozedura Kriminalaren Legeko 14. artikulua arabera, delitua burutu den lekuak dauka**, ulertzen delako bertan dela giza bizikidetasuna apurtua izan den tokia eta beraz hor dela egitate kriminalaren jazarpena errazago egingo den tokia. **Egia da 15. artikulua beste foru alternatibo batzuk aipatzen dituela**, irizpide kompetenzial guztiz berria eta Aurreproiektuaren 39. artikuluan barne sartzen dena, Prozedura Kriminalaren Legeari 15 bis artikulua berri bat gehitzean.

Kontuan hartu behar da lurralde eskumenaren kokapena delitua burutua izan deneko tokiaren arabera finkatzeak guztiz argia den azalpen dogmatiko bat duela, eta soilik honen faltan beste foru ordezkatzailerik batzuk aintzat hartu ahal izango dira. Lurralde oinarriak zigor-arloko arauaren aplikazio espazio-esparrua zehazten du. Mundu mailan onartua dago delitua burutua izan deneko Estatuaren subiranotasun eremua zigor gaitasunaren jabe dela, eta lurraldetasun-printzipio hau ez da eztabaidan jartzen. Hau dela eta, eta Estatu beraren barne, delitua burutua izan deneko lurralde irizpidea da hain zuzen ere, eskumenaren atribuziorako lehentasuna duen irizpidea.

Argi dago barneko foru hori zehaztu aurretik, lehenik eta behin, delitua Espainian burutua izan behar duela egiaztatzea dagoela. Eta Estatuaren zigor arloko boterea zehaztua izanik, eskumenaren banaketa



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

barne arauak faktore ezberdinak bateratu ditzazkete. Orain arte, Prozedura Kriminalaren Legeak lehentasunezko foru bezala delitua burututako lekua hartu du (*forum delicti commissi*), oinarriztat hartuz, ekintza eta prozesuaren arteko elkar erlazio handiena egitatea burutu deneko tokian dagoela eta modu honetan ikerketa lanak erraztuz, zeren eta toki hori erraztasun gehiagoz frogak aurkituko dituzten iturri izango da. Urrutiko ikerketa konplexutasun handikoa da (egitatearen aztarna bilketa, tokiko lekukoaren deklarazioak eta abar). Eta biktimarentzat mesedegarri izan daitekeena, beste pertsona batzuentzat neurritz gaineko zama izan daiteke, adibide gisa egitatea burutu deneko tokian bizi diren bertako lekukoak beharreko lekukotasuna emateko biktimaren bizilekuko barruti judizialera mugitu beharko dira.

Gainera, egitearen tokia aldean borondateagatik ere ezingo da aldatu. Egitatea burutzen da non hain zuzen ere gertatzen den tokian. Alderantziz, eskumena biktimaren helbidearen arabera zehaztea bere borondatearan esku dago aldatzeko aukera. Eta hasiera baten helburutzat biktima organura hurbiltzeko bidea erraztea bada, hau organu eta egitatearen arteko urruntasunaren kontura da. Era berean, biktimaren helbidean aldaketa huts batek arauaren helburua zapuztuko luke.

### **f) Loturagatik ematen den eskumena**

Aurreproiektuaren 40. artikuluan, Prozedura Kriminalaren Legeari 17 bis artikulua berri bat gehitzen zaio, helburua, emakumean gauzatutako Indarkeriaren aurkako epaitegien eskumena nolabaiteko erlazioaz loturik dauden delitu eta faltetara zabaltzea da, beti ere, lotura honek, 17.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

artikuluko 3 eta 4 zenbakietan aurreikusitako suposizioetakoren batean bere jatorria izanik. Hau da, beste batzuk burutzeko asmoarekin egiten direnak edota hauen gauzatzea errazteko helburuarekin egiten direnak eta beste delitu batzuen zigorgabetasuna eragintzeko burutzen direnak.

Aurreikuspen honekin, alde batetik, emakumean gauzatutako Indarkeriaren aurkako epaitegien eskumenetik kanpo, lotura duten delitu batzuk geratu daitezke, zeintzuk gainera, inolako dudarik gabe, lege bereziaren eremuan ere burutu daitezkeenak eta beste alde batetik, nabarmen egiten den era batean, 17 artikuluko berdin horren 5. zenbakiko suposizioa kanpoan uzten dute.

### **g) Babes-aginduko Jarraipen Batzordeak prestatutako protokoloak.**

Jakina den bezala, 27/2003 Legetik aurrera (Bigarren Xedapen Gehigarria), joan deneko 2003 urteko uztailaren 22an Jarraipen Batzorde bat sortu zen, hain zuzen ere Kontseilu honek parte hartzen duen instantzia berau, hala nola estatuko Fiskaltza Nagusia, gaiarekin zerikusia duten Ministerioak, Autonomia Erkidegoak, Probintzia eta Udalerrien Federazioa, Abokatuak eta Prokuradoreak.

Hauen lanatik aurrera makina bat protokolo landu dira eta hori dela medio, neurri horietako zenbaitzuzun edukia, hala nola beste ideia eta proposamen batzuk Aurreproiektura gehitzeko aukera kontuan hartu beharko litzateke, hauei, eragingarriagoak bihurtuko lituzkeen balio



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

arauemaile bat emanaz. Baina edozein dela kasua ere, eta iadanik behin eta berriz esan den bezala, 27/2003 Legeak ezarritako erregimen berriaren gainean, oso tarte gutxiko denboran beste erregimen berri bat gainezartzen da, gainjartze eta nahasketa prozesal arrisku garbiaz eta eskumen gainjartzeaz baita Komisio honen jarduera Behatoki berriaren jarduerekin parekatuz gero (ikusitako informatuaren 25.1 Artikulua)

### **h) Publizitate iraingarria eta Indarkeriaren arloko epailearen eskumena**

Testu informatuaren osoko bokazioaren barruan, Publizitatearen Lege Orokorra aldatzen da. Txosten honen VII. atalean aspektu hauek aztertuko dira eta oso bereziki Indarkeriaren arloko epaile hauen ustekabeko eskumen atribuzioarekin zerikusia duen guztiari buruz -ez ezazu ahaztu zigor-arloko ordenaren espezialitate bat direla- eta era berean, publizitate iraingarria gelditzeko dauden ekintzak ezagutzeko, konnotazio zibil izaera argikoa eta emakumean gauzatutako indarkeriarekiko harreman eskasaz.

### **5. Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Gobernuaren Ordezkaritzako legitimazio prozesalaren gainean**

Organo honi buruz soilik 24.2 artikulua gainean informatu beharra dago, "*organo judicialen aurrean eskubideak eta Lege honek zaintzen dituen interesak defendatzeko bere esku hartzea legitimatua egongo dela*" aurreikusten duelako.

Begi bistakoa da aipatutako Ordezkaritza hau Estatuko Administrazio Zentraleko organo bat bada, ez dela eratzen berezko pertsonalitate



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

juridikoa duen organismo publiko bat bezala. Hori dela medio, ez du zentzurik inolako legitimazio prozesalik izatea, ahalmen prozesalik ez duen einean. Hau horrela izanik, legitimaturik egoteko, espresuki, organismo publiko bezala eratu beharra du, bestela, legitimatua egongo dena Administrazio Nagusia izango delako.

Txosten honen VII. epigrafean, berriz ere legitimazio honen gainean hitzegitera itzuliko da, hala nola gizarte zerbitzuetara, 14. artikulua kontuan hartuz.

### **6. Fiskaltzaren funtzioen gainean**

Aurreproiektuak Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Fiskala sortzen du, aspektu honetan gainbegiratze arduraduna eta Fiskaltzaren koordinazioaren arduraduna baita, hala nola, Auzitegi Nagusien Fiskaltza bakoitzean baliokide den Sail baten sorrera bitartekoa eta baita gaien espezializazioa duten Fiskalak esleitzen ziren Probintzia Auzitegietako bitartekoa. Fiskalek Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiei emandako eskumena duten eta delitu edo falta eragin duten ekintzen zigor-arloko prozeduretan esku hartuko dute. Baita ere baliogabetasun, banaketa edo dibortzio prozesu zibiletan esku hartuko dute edo ezkontide edo seme-alabek tratu txarrak izan dituztela argudiatzen denean, seme-alaba adingabeen zaintza eta babesaren gainean ere arituko dira.

Aurrekari bezala aipatu beharra dago 1/1998 Zirkularra edo Gutuna, berau, *etxe eta familia arloko tratu txarren jazarpenean Fiskaltzaren esku hartzeari buruzkoa*, eta izaera honetako kausen jazarpen eta arretarako



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Fiskaltza bakoitzean Familia Indarkeriaren aurkako Zerbitzua jartzearen errudun.

Gorago nabarmendu nahi izan den bezala, Fiskaltzari emandako papera ez da bereziki berria zeren eta, nahiz eta 1.2 artikulua bere osotasunean mantendu arren, Kontseilu honek organo unipertsonal maila berri bat sortu baino lehen, osoko babes judizialaren pisua, koordinazio funtzio bat bere gain hartu dezakeen eta aldi berean hartu behar duen instantzien izatean oinarritu beharko litzatekeela ulertzen du. Fiskaltzaren kasua da hau. **Harrigarria gertatzen da Fiskaltzaren etorkizuneko protagonismoa Justizia erreforma esparruaren barruan iadanik aditzera emana, gero, Memoria edo Txosten ekonomikoan Ministerio horrentzako aurreikusitako gastua zero izatea. Hori dela medio, bere jardutea Fiskal ordezkari batean oinarrituko da eta iadanik dauden fiskaltzetan sekzio eraketan. Alderantziz, organizazio judiziala izango da haziko dena eta iadanik adierazi den bezala, honek guztia berriz ere epaileen menpe egotera eramango du.**

Azken finean, Fiskaltza etxe esparru berdineko zigor-arloko nahiz eta zibileko zergati ezberdinen jarraipen tresna bezala are gehiago bultzatu beharra dago. Zentzu honetan, kontraesankorra da Aurreproiektuaren 50. artikulua Estatuko Fiskal Nagusiak, ordezkari gisa, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Fiskal bat izendatuko duela aurreikustea eta ordezkari honek zigor-arloko kausa guztietan ez duela esku hartuko, baizik eta soilik *“Estatuko Fiskal Nagusiak garrantzi berezia ikusten duen zigor-arloko prozesu haietan”* [ Fiskaltzako Estatutu Organikoaren 18. artikulua quarter 1 a) ], arlo zibileko kausentzat aldiz -teorikoki zigor-arlokoen menpe- beti esku



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

hartzen du [ Estatutuko 18. artikulua quarter 1 b) ].

Bigarren puntu batean eta fiskalaren bultzadak emaitz positiboak ematen ez baditu, organo berrien sorreragatik baino, lehen aipatu bezala, iadanik badauden organoen espezializazio funtzionalagatik apustu egin beharra dago eta behin legearen eraginari buruzko esperientzia jasota eta, batez ere, erreforma prozesalen eraginari buruzkoa, epe ertainera epaitegi mota berri bat sortu edo gomendagarria ez den erabaki beharko da. Ezin egin daitekeena da lehendabizi organo bat sortu, beharbada, auzizaletasuna indartuko duen ideiarekin.

### IV

## **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO BEHATOKI NAZIONALA ETA EPAILE ETA MAGISTRATUEN PRESTAKUNTZA**

### **1. Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Behatoki Nazionala**

25.artikuluak, babes instituzionalaren barruan, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Behatoki Nazionalaren sorrera aurreikusten du. Honi buruz, Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokia izatearen gainean atentzioa eman beharra dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Justizia eta Lan eta Gizarte Lanetako Ministerioek 2002ko irailaren 26an sinatutako Hitzarmenaren ondorio bezala sortua eta Justizia Administrazioaren esparruan etxeko eta genero indarkeriaren aurkako tratamendurako sortua.





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Behatoki hau gaiaren barruan baina hiruak banandurik, instituzio bakoitzaren ekintzei eraginkortasuna emateko helburuarekin sortu zen, bere osaketa justizia gaietan eskumena duten Autonomia Erkidegoei eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari zabalduz, honela, herritarren oinarritzko eskubideen defentsa, bermea eta babesaren koordinazio administratiboaren oinarri konstituzionala betez. Bere sorreratik, Behatokiak eginkizun oso garrantzitsua egin du.

Behatokiak garatutako ekintzarik garrantzitsuenak, beste batzuen artean, ondorengo hauek dira:

1. Epailleek emandako ebazpen judizial eta Epaien jarraipen ikerketen eginkizun edo lana, alde batetik Ganbera legegileek onartzen dituzten legeak zer nolako aplikazioa duten ezagutzeko helburuaz eta beste alde batetik, erreforma legegileen eragina ebaluatzeko asmoarekin.

2. Etxeko indarkeriaren aurkako biktimen babeserako Erregistro Nagusi baten sorkuntza, berau uztailaren 31ako 27/2003 Legean sartua, Babes Ordenaren erregulatzailerik eta 355/2004 Errege Dekretuz onartua.

3. Behatokiak dituen materialen sartutako kolektibo eta elkarteekin bilerak.

4. Dibulgazio lanak era berezi batean epaile, fiskal, abokatu, prokuradore, administrazio publiko, unibertsitate, elkarte, Herriaren Defentsari, gizarte zerbitzu eta abarren artean.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

5. Babes Ordenaren Jarraipen Komisioaren sorketa, berau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Justizia Ministerioko, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko, Estatuko Fiskaltzako, Justizia gaietan eskumena duten Autonomia Erkidegoetako ordezkariengatik osatua, Justizia esparru mailan Profesionalen Elkargoetako ordezkariengatik osatua eta Probintzia eta Udalerrien Federazioakoak, Babes Ordenaren ezarpenerako garrantzia orokorra duten protokoloak eta Epaile, Auzitegi eta Administrazio Publikoen arteko koordinaziorako tresna egokiak lantzeko eskumena dutenak hauek.

6. Epaile eta Magistratuen prestakuntza, 2003 urtean kongresu bat eta hiru kurtso ospatuak izanik eta 2004 urtean mintegi bat.

Botere Judizialaren Kontseilu honek egokitzen hartzen du iadanik existitzen den Behatokiaren biziraupena, zeren eta ekintza esparruek ez daukate zertan bata bestearen gainean jarri beharrik. Iadanik sortua dagoenak ez du emakumeen aurkako indarkeria esparru hezitzailea, lan arloa edo funtzionariala ebaluatzen, alderantziz, Justizia Administraziokoan mugatzen da, ekintza judizialekin harremana duten datuen bilketaz arduratuz, estatistikak landuz eta Epaile eta Magistratuen prestakuntza espezifikoz arduratuz, bien arteko lankidetasun formulen ezarpenari kalterik egin gabe.

Izendapen berdina erabiltzean nahasketa bat gertatu litzateke, baina kontua da, Madrilgo Autonomia Erkidegoan iadanik Etxeko Indarkeriaren arloko beste Behatoki bat existitzen dela, orain arte funtzioen inolako gainjartzerik edo inolako gatazkarik eman gabe.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Ondorioz, 25. artikulua Xedapen gehigarrien egoitzara tokiz aldatzea proposatzen da, dagoeneko existitzen den Behatokiari buruzko eduki batekin eta egokitzen ulertzen diren koordinazio neurrien gaineko edukiarekin baita.

### **2. Epaille eta Magistratuen prestakuntza**

36.artikuluak, epaille eta magistratuen prestakuntzaren gainean, testu informatuarentzat desagokia den aurreikuspen bat sartzen du, bere estatutu profesionalean eragina izateagatik, Botere Judizialaren Lege Organikoari gorde beharreko materia da, batez ere 19/2003 LOaren erreformaren ostean eta bereziki 307 eta 433 bis artikulua.

Baina gainera, desagokizat hartzen da bai Kontseilu honek, hala nola Gobernuak eta Autonomia Erkidegoek ( suposatzen da bi instantzia hauek, Justizia Administrazio eta Auzitegikoen zerbitzura dauden langileen gainean, nahiz eta idazkari judizialei buruz ezer esaten ez den ), epaille eta magistratuek berdintasunaren gainean eta sexua dela eta ez diskriminaziori buruz prestakuntza espezifikoa izan dezatela ziurtatzeko betebeharrak dutela aurreikustea, hain zuzen ere, Konstituzioaren 14. artikuluari buruzko heziketa bat. Nahikoa da Karrera Judizialean sartu ahal izateko Oposizio programara hurbiltzea, Kontseilu honek aho batez onartutako Eskola Judizialaren irakaskuntza-programara hurbiltzea edota etengabeko heziketa planen kurtso ezberdinetara hurbiltzea – hauek ere aho batez onartuak-guzti hau orain dela urteak egiten ari dela ondorioztatzen.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Ondorioz, askoz gomendagarriagoa da 36. artikulua hau, behinik behin epaile eta magistratuei dagokionez, Xedapen gehigarrien egoitzara eramatea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren aipaturako artikuluekin ados, duen hurrengo edukiaz: heziketa egitarauetan orokorrean etxeko indarkeriari buruzko ekintzen antolaketa eta emakumeen gauzatutako indarkeriaren aurka bereziki egiten diren ekintzen antolaketak, hala nola berdintasunari buruzkoak bultzatzen jarraituko du.

## VII

### PROPOSATUTAKO BESTE NEURRI BATZUEN ANALISI LABURRA

Kontseiluko txostenaren ahalmena eragiten duten beste kuestio horiei heltzen zaie, “*arau prozesal edo Oinarrizko Eskubide egikaritzaren Auzitegi arrunten aurrean aspektu juridiko konstituzionalak eragiten dituztenei*” buruzkoak diren einaen [Botere Judizialaren Lege Organikoa, 1081.e) artikulua]

#### **1. Sentsibilizazio neurriak: publizitatea eta komunikabideak**

Aurreproiektuak azaroak 11ko 34/1988 Publizitateko Lege Orokorra aldatzen du, emakumeen duintasunari eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunari errespetu handiago bat emateko helburua izanik, hala nola ez estereotipaturako eta ez diskriminazioa duen irudi bat izateko duten



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eskubidea, nahiz eta komunikabide publiko nahiz pribatuetan agertu, aurreproiektuaren zioen azalpenak jasotzen duen bezala. Era berdin batean, publizitatearen etenaldi edo zuzenketa ekintza moldatzen du, berdintasunaren alde lan egiten duten instituzio eta elkarteak honetarako legitimatuak izanik.

Aurreproiektuaren 7. artikulua, emakumearen irudiaren erabilera izaera iraingarriaz edo diskriminatzaileaz publizitate objektu bezala legez kontraktatzat hartzen du. Honen gainean esan beharra dago, iadanik egungo Publizitateko Lege Orokorreko 3. artikulua, bere a) letran legez kanpokotzat jotzen duela ondorengo hau: *“edozein pertsonaren duintasunaren aurka doan publizitatea edo Konstituzioan onartuak izan diren balore eta eskubideak urratzen dituen, bereziki haurtzaro, gaztaro eta emakumeari buruzkoa denean”*. **Hori dela eta, hitz egiten ari garen manu honetan aurreikusitako sentsibilizazio neurria dagoeneko existitzen zen gure antolamendu juridikoan, eta ez soilik edozein pertsonaren duintasunaren babes orokorragatik, legez kanpokotzat hartuz pertsona horren kontra doan publizitatea, baizik eta halaber eta era bereziz, emakumea aipatzean. Guzti hau dela eta, hasiera batean manu honek ez dio ezer berezirik gehitzen emakumeari dagoeneko, publizitate esparruan, eskeintzen zitzaion babes bereziari.**

Hala eta guztiz ere, **Laugarren, Bat, Azken Xedapenak**, Publizitatearen Lege Orokorren 3 a) letra artikulua espresuki aldatzen du, Aurreproiektuaren 7. artikuluko edukira moldatzeko. Ezberdintasuna zera da, orain Espainiako Konstituzioaren 18 eta 20.4 artikuluek jasotzen dituzten balore eta eskubideei erreferentzia berezi bat egiten zaiela.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Honekin 18. artikuluko eskubideak sendotzen dira, nahiz eta honek ez duen esan nahi konsituzionalki onartutako beste balore eta eskubideen aurka doan publizitatea ez dela legez kanpokotzat hartzen jarraituko eta, nahiz 20.4 artikuluari aipamena garrantzitsua izan arren inolako arazorik gabe alde batera uztea posible izango litzateke arau konstituzionala antolamendu juridikoaren gailurrean egon bakoitzeko, botere publiko eta partikularrak lotesten ditu eta berdinarean gainean hitz egin duen jurisprudenzia konstituzionala behin eta berriro errepikatzen da 20. artikulua onartutako askatasunei muga ezartzeko orduan.

Publizitatearen Lege Orokorreko 3. artikuluko berdinako a) letran, bigarren parrafo bat sartzen da non azalpen gisa “*emakumearen gorputza era partikular eta zuzenean izaera iraingarriaz edo emakumearen irudia diskriminazioa eragiten duten jarduera estereotipatuekin erlazionaturik aurkezten duten iragarkiak*” aurreko aurreikuspenean sartua bezala hartzen du. Logika juridikotik eta aurretik aipatutako manuen *secundum constitutionem* interpretazio bati jaramon eginez, posible litzateke bigarren parrafo hau sobera egotea, zeren eta emakumearen irudia edota honen gorputzaren erabilera iraingarria den izaera bat, beti joango da duintasunaren aurka. Hala eta guztiz ere, manua era berezian argitzera lagundu dezake, bereziki bere gorputza edo irudia ondorio bezala diskriminazioa ekartzen duen jokaera estereotipatuei erlazionatua agertzen denean. Hala eta guztiz ere, eta arauaren aurreko idazketaren aurka, haurtzaro eta gaztaroaren publizitateari buruz emandako babes zehatza alde batera utzi izana kritikagarria da.

Aurreproiektuko 8. artikulua, emakumearen irudia izaera iraingarriaz



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

edo diskriminatzaileaz erabiltzen duen legez kanpoko publizitatearen etetzea edo zuzentzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Gobernuaren Ordezkaritzari, Emakumearen Erakundeari eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteei eskatzeko legitimazio aktiboa onartzen du eta, aldi berean, emakumeen interesen babesa helburu bakartzat dutenak. Gobernuaren Ordezkaritzari buruz, gorago esan denari lotzen gatzazkio, organismo autonomoa bai den Emakumearen Erakundearen legitimazio espresuaren begi bistan egiaztatzen dena.

Manua **Laugarren, Bi, Xedapen Gehigarrian** finkatutakoarekin osatzen da, hau dela eta Publizitatearen Lege Organikoa aldatzen da eta Publizitatearen Lege Organikoaren 25. artikuluari 1 bis) atal berri bat gehitzen zaio. Lege baten testuan legitimazio aktibo era zehatz baten aurreikustea beharraren zergatia oso ongi ez ulertzeaz gain, batez ere aurrerago legitimazio era horren materia erregulatuko den araua benetan aldatzera helduko denean, manuak ez du merezi beste azalpenik, etentzeko ekintzetaz arduratu diren Erkidegoen Direktiben gainean, Publizitatearen Lege Orokorrean finkatutakoari erantzuten dioen bitartean. Erkidego Direktibo hauek, urriak 28ko 39/2002 Legearen aldarrikapenari bide eman zioten, berau Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babes materialen Erkidego Direktibo ezberdinen Espainiar Antolamendu Juridikoaren transposiziokoa eta 25 eta 26. artikulua aldatu zituena eta 34/1988 Legearen 29. artikulua berri bat gehitu zuena.

Zinez, manu hauek, legez kanpokotzat ulertutako publizitatearen etenaldia edo zuzenketa iragarkitzaileari eskatzeko legitimazio aktiboa iadanik onartzen zuten, ez bakarrik legez kanpoko publizitate horregatik



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

ondorioak izan dituen pertsona natural edo juridikoei, baizik eta gainera, modu orokor batean, eskubide subjektibo bat duten haientzat edo legezko interes bat eta, legez kanpoko publizitate horrek interes kolektibo edo zehaztugabe bat ukitzen duenean, etenaldia edo zuzenketa ondoren aipatzen diren guztiek eskatu dezakete: Kontsumoko Institutu Nazionalak, Autonomia Erkidego eta toki bakoitzeko Udalbatzarrei dagozkien organoek, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteek, legalki eraikiak, Legearen 29. artikuluko baldintzak betetzen dituzten Europear Erkidegoaren beste estatu batzuen Erakundeek eta orokorrean, eskubide baten edo legezko interes bat duten titularrek. Hala eta guztiz ere, legitimazio aktiboaren zehaztapen ezin hobeak duen garrantzia prozesalagatik, gomendagarria izan daiteke manuan, emakumearen irudia urratzeagatik publizitatea legez kanpoko den kasu haientzako, iadanik aipatu diren erakundeak eta entitateak sartzea, nahiz eta sistematikoki askoz zuzenagoa litzateke 1 bis) atal berri bat sartu baino, manua 3 zenbakiaz zenbakitu, egungo 3 zenbakia 4 zenbakia izatera pasatuz.

**Laugarren, Bi, Xedapen Gehigarrian,** Publizitatearen Lege Orokorrari Xedapen Gehigarri bat gehitzen zaio, nahiz eta lehen parrafoa sobera egon ondorengo hau esaten duen momentutik: etenaldiko ekintza Publizitatearen Lege Orokorraren 26 eta 29. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat gauzatuko dela, aipatzen dugun Lege Aurreproiektuak sartutako 25. 1 bis artikulua aipatzen dituen pertsonak eta erakundeek izango duten legitimazio kontuetan salbu. Guzti hau aldiz begi bistakoa da eta dagokion manuetan jaso dago.

**Bigarren parrafoak garrantzia gehiago dauka zeren eta etenaldi**





## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**ekintza hauek ezagutzeko eskumena Indarkeriaren arloko epaitegiei ematen dio, zentzu askorik ez duen eskumen- atribuzio bat berau, kontuan izanik ezagutzera behartuak izango diren materia zehatza eta ez duena inolako erlaziorik mantentzen emakume berdinean aurkako indarkeriari buruz eta esparru berdinean planteatu daitekeen problematika zibil eta zigor-arloko guztia epaile berdinek ezagutuko duten ideiarekin. Hain zuzen ere, emakumearentzat publizitate iraingarria beti izango da iraingarri modu orokor batean eta ez emakume konkretu bati buruzkoa eta ezta soilik indarkeria ekintza konkretuen biktima izan denari buruzkoa, kasu hauetan, babes helburua beti zehaztubagea izanik: hain zuzen ere honegatik, lehen aipatu ditugun elkarteak ekintza hauen gauzaterako aktiboki legeztatzen dira. Gainera epaitegi hauek zigor-arloko ordenaren espezialitate bat izanik, aurreikuspen hauekin publizitate hau ere “kriminalizatzen” dela eta gainera emakumearentzat bakarrik dela ideia honek, iadanik aztertutako diskriminazio positiboaren sorkuntza desegokiaren ideietan sakontzen du eta baita jurisdikzio berezi baten aurrean dagoela soilik sexua dela eta.**

Aurreproiektuko 9. artikulua, titulartasun publikoa duten komunikabideek gizon eta emakumearen arteko berdintasuna babestu eta zaintzeko ardura hartuko dutela ezartzen du, hauen arteko edozein legez kanpoko diskriminazio mota eragotziz. Emakumearen osoko babesa bada oinarrizko abiapuntua, bere duintasun eta berdintasuna azken ondorioetaraino defendatuz eta edozein diskriminazio mota debekatuz, hau berau gure Konstituzioan eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunetan onartua izan den bezala, eta gainera manu konstituzionaletan eta gainerako



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

ordenamenduetan herritar guztiak eta botere publikoak lotetsiak, **ez soilik titulartasun publikoa duten komunikabideek, baizik eta baita titulartasun pribatua dutenek ere gizon eta emakumearen arteko berdintasuna babestu eta zaintzeko ardura hartu behar dute.**

Egia da, adibide gisa, urtarrilak 10ean 4/1980 Legeak onartutako Irrati eta Telebistako Estatuak Estatuaren komunikabide sozialak pertsonen duintasuna, fama, bizitza pribatua eta Konstituzioan onartzen diren eskubide eta askatasunak errespetatzera behartzen dituela, hala nola, Lege berak Konstituzioko 14. artikuluan eta Zioen Azalpenean onartzen diren berdintasun baloreak errespetatzera, radiofusioa eta telebista funtsezko zerbitzu publiko bat bezala hartzen denean, eta zeintzun titularitatea Estuari dagokio. Estuak, bere aldetik, askatasuna eta berdintasuna errealak eta eraginkorrak izan daitezzen laguntzeko bide nagusi bezala hartzen ditu, arreta berezia jarriz marjinetuen babesean eta emakumearen ez diskriminazioan. Hitz nahiko antzekoetan azaltzen da abenduak 26ko 46/1983 Legeko 5. artikulua, berau Autonomia Erkidego bakoitzean Hirugarren Telebista-Kanaleko erregulatzaileria. Beste alde batetik, uztailak 12ko 25/1994 Legeak Antolamendu Juridiko Espainiarrari 89/552/CEE Direktiba gehitzen dio, berau telebista-radiofusio ekintzen ekitaldiari dagokion estatu kideen lege-mailako, arauzko eta administratibo xedapenen Koordinazioari buruzkoa eta bere 9. artikuluan legez kanpokotzat hartzen du giza duintasunaren beharrezko errespetuaren aurka doan edo giza duintasuna beste edozein arrazoiengatik, sexua barne, diskriminatzen duen publizitatea.

## **2. Gizarte laguntza eta doako laguntza juridikoaren gainean**



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**a) Gizarte zerbitzu zehatzen zigor-arloko legitimazioa**

**14.artikuluak emakumearen arreta, larrialdi, laguntza eta osoko susperraldirako gizarte zerbitzuen legitimazio berezi bat finkatze du, epaileari beharrezkotzat hartzen dituen premiazko neurriak eskatzeko.**

Neurrien eskakizuna egiteko ez da nahastu behar alde batetik gizarte zerbitzuek epailearen ezagutzapean antzemandako egoera jartzeko aukera eta bestetik legitimazio premiazko izaeradun neurriak, zentzu prozesal batekin, hartzeko beharra. Berriro ere organoen aurrean gaude eta ez pertsonalitate gabeko erakunde edo entitateen aurrean eta, beraz, ahalmen prozesal gabekoa. Uztailak 31ko 27/2003 Legeak 2.2 artikuluan babes ordena ofiziozko epaileak edo biktimak eskatuta edo aurreko atalean adierazitako harremanik duen pertsonak, edo Fiskaltzatik erabakitakoa izango dela ezarri zuen. Eta Prozedura Kriminalaren Legeko 262. artikulua aurreikusten duen salaketaren behar orokorra alde batera utzi gabe, aurreko atalean aipatutako ekintza baten ezagutza izango balute, entitate edo erakunde asistentzialek, publikoek nahiz eta pribatuek berehala guardiako epailearen edo Fiskaltzaren ezagutzapean jarri beharko dute, babes ordena hartzeko prozedurari hasiera eman edo berau premiazu ahal izateko helburuz.

Gainera, nahikoa dirudi aipatutako legeak jasotzen duen gizarte zerbitzuen parte hartzea, zeinek Administrazio Publikoen menpe dauden gizarte zerbitzu edo instituzio asistentzialen aurrean babes ordena eskatzea posible izateko aukera onartzen duen, hala nola gizarte zerbitzuek eta



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

lehen adierazitako instituzioek laguntza eskeini behar dioten etxeko indarkeria izan duten biktimei babes ordenaren eskaera erraztea, helburu honekin hauen eskura informazioa, formularioak eta, kasua denean, Justizia Administrazioarekin nahiz eta Fiskaltzarekin telematika-komunikazio kanalak jarritz.

Azken batean, eskaera biktimari dagokio, edo babes neurriak behar dituzten pertsoneri, gizarte zerbitzuen laguntza alde batera utzi nahi gabe. Baina ez da arrazoizko justifikaziorik ikusten legeak gizarte zerbitzuei premiazko neurri hauek epaileari eskatzeko legitimazioa ematea.

Adibide bezala, apirilak 8ko 16/03 Legeko 21. artikulua, Kanariaseko genero indarkeriaren aurkako emakumeen osoko prebentzio eta babeserari buruzkoa, gizarte zerbitzuei hauek ezagutzen dituzten indarkeria egoerak dagokion aurtoritarearen aurrean salatzeko funtzioa modu egokiago batean ematen die, beti ere biktimaren alde aurreko adostasunaz eta eskudun autoritateekin elkarlanean arituz genero indarkeriaren etorkizuneko egoeren aurrean edo indarkeria ekintzen gauzatzearekin erlazionaturik dauden bide frogagarriak ematerakoan biktimaren babesa helburu bezala izango duten neurri asistentzialak hartzeko orduan.

### **b) Doako laguntza juridikoa**

15.artikulua urtarrilak 10eko 1/96 Legearekin harremanetan jarri behar da, estatu-mailako esparruan nahiz eta autonomikoan hartutako Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa eta garapen Erregelamenduei



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

buruzkoa. Beste alde batetik, antolamendu juridikoaren batasuna eta koherentzia mantentzeko komenigarria litzateke aipatutako 1/96 Legearen erreforma egiten hasia 15. artikulua gehituz, ez delako gomendagarria lege informatuak “osoko” izaera aldarrikatzea, testu informatuan arautuak ere dauden gaiak arautzen dituzten beste lege berezi haiek beraien osoko izaera galtzearen kontura.

Edozein dela kasua ere, testu informatuak pausu garrantzitsua suposatzen du nahiz eta komenigarria izan baita doako laguntza juridikoa edozein ekintza prozesalean alde aurreko informazioa ere luzatzea, profesionalen elkargoekin eta Autonomia Administrazioekin egoki diren hitzarmenen bidez. Era berean, manua 1/96 Legeko 21. artikularen aipamen batekin osatu beharra dago, zeren eta emakumean gauzatutako indarkeria kasu konkretu hauetan da non askoz justifikatuago dagoen organo judizialak babesa eta ordezkaritza eskubideak premiazko modu batean ziurtatzea, ez soilik salaketa-egilearena, baizik eta biktimarena baita eta, beraz, kasuaren zirkunstantzia eta premiaren arabera erabaki eraginkor bat hartu beharra dago, profesionalen elkargoen eginkizuna behin-behineko abokatuaren eta prokuradorearen izendapena izanik, ondoren, Legeak aurreikusitakoaren arabera, eskaera bideratuz.

### **3. Lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzaren Prestazioak.**

Aurreproiektuko 16. artikulua Langileen Estatutua eta Bosgarren eta Seigarren Azken Xedapenetan Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren aldaketa batera daramatzaten lan-eskubide eta gizarte segurantzako eskubide batzuk zenbatzen ditu. Azken Xedapen hauei egingo zaizkien



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

aipamenei kalterik egin gabe, 16.3 artikulua indarkeria jasan duen emakumearen egoeratik ondorioztatutako zirkunstantzia fisiko edo psikologikoagatik ematen diren lanean ez agertze baldintzak justifikatuak bezala hartzen ditu, horrela behintzat arreta gizarte zerbitzuek zehazten dutenetan. Manu hau Langileen Estatutu berdinarekin 54.2 a) artikulua erlazionatu beharra dago, diziplinazko kaleratzearekin zerikusian eta 5. artikulua langileen oinarritzko eskubideei buruz.

Mutur hauei dagokienez, 18. artikulua babes ordena emanez, emakumezko langileen indarkeria egoera -lan eskubideei buruzko eta gizarte segurantzako prestazioei buruzko kapituluaren aurreikusitakoarekin bat- egiaztatzea baimentzen du edo, hauek ezean, eskatzailea emakumean gauzatutako indarkeriaren biktima dela adierazten duten adierazgarriak daudela dioen Fiskaltzaren txostena aurkeztuz. Manu hau, ikusi den bezala, Indarkeriaren arloko epaileak eman dezake edo baita guardia funtzioetan dagoen Instrukzioko epaileak eta honi buruz bai ohartarazi beharra dago, iadanik lehen esan den bezala, testu informatuak zigor-arloko bidea arlo zibileko auziei begira manipulatzeko arriskua baldin badauka, aurreikuspen hauekin ere ulertu beharra dago arrisku horrek, gainera, lan harremanen eremua heltzen duela. Aurreikuspen hauek soilik emakume langilera mugatzen direlari buruz, legearen aplikazio esparruaren gainean adierazitakoari lotzen gatzaito. Nolanahi ere esan ahal izango da aukera hau iadanik 27/2003 Legearekin existitzen dela, egia, beraz hemendik gomendatua izan da testu informatuarekin – arrisku horiek areagotzen dituenak- nahaste prozesal gehiago ez sortzea eta babes ordenaren erregimenaren ebaluazio zehatzago eta handiago batean egotea zabaldu aurretik.



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

Beste alde batetik, Bosgarren Xedapen Gehigarriak Langileen Estatutuko Legearen artikuluko batzuk aldatzen ditu, lehen aurkeztutako lan eta gizarte segurantzako eskubideak eraginkorrak egiteko. Hau dela eta, Aurreproiektuko 16. artikuluko 1 eta 2 atalen edukiak, nolabait ez dute zentzu askorik.

Egia bada neurri hauek indarkeria mota honetako biktimak eraginkortasunez babesten lagundu dezaketela, hala eta guztiz ere komeni da zehaztea Langileen Estatutuko 49. artikuluko 1go ataleko m) letran orain sartzen den lan kontratuaren amaiera-zergatia, langileak borondatez hartutako amaiera mota bat besterik ez dela eta d) letran aurreikusitakoaren aurrean, honako berezitasuna dauka: ulertzen da kasu honetan ezinbesteko kausa bat existitzen dela eta gainera ez dela beharrezkoa hitzarmen kolektiboek edo lekuko ohiturek azpimarratzen duten bezala aurretik jakinaren gainean jartzea.

Seigarren Azken Xedapenean Gizarte Segurantzako Lege Orokorra aldatzen da postuaren gordetzea duen lan kontratuaren amaiera epeak, gizarte segurantzako prestazioei dagozkienei buruz kotizazio-eraginkor epe izaera izango duela kontuan hartzen da. Eta ulertu beharra dago -1.1 atalaren e) letraren aldaketagatik eta Gizarte Segurantzako Lege Orokorren 208 artikuluko 1.2 atalaren aldaketagatik- indarkeria egoera bategatik ondorioak dituzten emakume langile hauek, kasua edozein izanik, langabezia egoera legal batean aurkituko dira, ekintza zehatzaren programatik ondorioztatu daitekeena eta Espainiako Erreinuaren Lan Planaren esparruan Aurreproiektuaren 17. artikuluko aurreikusten duena alde batean utzi gabe.



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

#### **4. Indarkeriaren objektu diren emakume funtzionario publikoen eskubideak**

Bere izatearen gain indarkeria jasan duten emakume funtzionario publikoen lekualdaketa, borondatezko eszedentzia eta lan denboraren egokitzapen eskubideak errazten dira. 19 eta 21. artikuluetan dauden arauak 30/84 Legeak aldatzen duen Zazpigarren Azken Xedapenarekin osatzen da, berau Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzkoa.

Honen gainean soilik hurrengo honi buruz atentzioa ematea komeni da: aipatutako Azken Xedapenak bere hirugarren puntuan, 30/84 Legeko 29.3 artikuluan e) letra berri bat gehitzen duela, emakumearen aurkako indarkeriaren biktimak izan diren emakume funtzionario publikoen interes partikularragatik borondatezko eszedentzia emateko, behar bada eta sistematikoa den ikuspuntu honetatik begiratuta, zenbaki ezberdin bat bezala arautzea gomendagarriagoa izan arren, iraupen epeari lotua geratzen ez den eszedentzia modu honen ezaugarri bereziak kontuan izanik, lehen sei hilabeteetan zehar lanpostua gordetzeko eskubidea emanaz, beste zenbaki batekin 29. artikuluko 4. zenbakia arautzen den bezala, haurrak zaintzeko eskatzen den eszedentziari buruzkoa.

Gainerakoan eta lege informatuaren babesean ematen diren zigor-arloko erabakien asmoei buruz eta aukera hauen onura bakarria emakume funtzionarioa izatearen gainean, aurreko atalean iadanik azaldutakora joatea besterik ez dago.





BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

## VII ONDORIOAK

Adierazitako guztia kontuan hartuz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia honako ondorio nagusi hauetara heltzen da:

**1go** Etxeko indarkeriaren gertakariaren larritasuna orokorrean, handia bereziki emakumeen kasuan, Zuzenbide Estatuaren erantzuna ahalik eta energiko eta eraginkorra izan dadin eginahala merezi du. Honek bere kabuz, beste ekimen bati ongiatorria eman behar izatea suposatzen du, adibidez informatua den bezala, behin eta erantzun hori juridikoki hobetzeko laguntzen badu. Bestalde, sistemari arrazionaltasun eta eraginkortasun gehiago emango dioen edo ez zalantzak izateko oinarri bat baino gehiago dago.

**2.** Testu informatua azken urteetan garatutako ekintza legal talde batean parte hartzen du -aurreko legislaturan batez ere- bai estatu mailan bai autonomia mailan. Hauen esparruan iadanik osoko legeak badaude eta are zehatzago babes arauak, adibide gisa 27/2003 (SS. IV. 1) Legeak sortutako babes ordena.

**3.** Politika kriminalaren helburu nagusienetako bat etxeko indarkeria jasan duen biktimaren babesa duen testuinguru batean jaiotzen da, hortaz, ez da jaiotzen neurri gabezia duen egoera batean, baizik eta legegintza ekinbide anitz bat duen egoera batean eta gainera iadanik indarrean dagoena, baina zeinek, indarrean doan epe laburreratik etxeko indarkeriaren gertakari sozialari aurre egiteko duen benetako



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eraginkortasuna balioestea oraindik baimentzen ez duena [SS V.2.a)]

4. Bereziki kezka garria da babes ordenaren erregimenaren ezarpena orain dela oso gutxikoa izanik (27/2003 Legea) gainjarpenak, nahaste prozesala eta eskumenen arteko interferentziak sortu dezakeen beste erregimen paralelo bat gehitzea. Informatua bezalakoa den ekintza bati heldu aurretik, 27/2003 Legeko erregimenaren ebaluazio zehatzago bati itxaron beharra legoke.

5. Nahiz eta osoko izaera izan, lehen mailako garrantzia duen gizarte arazo baten aurrean, ezberdina bere kausa eta manifestaldietan, konponbideen judizializazio nabarmen baten alde jartzen da. (SS IV.1)

6. Ez da ontzat hartzen emakumeen aurkako indarkeriaren arloko erregulatzaileria izatea soilik: osoko lege baten beharra etxeko indarkeria gauzatzen den esparru guztiak bere baitan hartzea da. (SS IV.2)

7. Emakumeak ez du babes handiagoa legeak soilik bera babesten duelako, bere esparrutik adingabeak, adinduak nahiz eta gizonak baztertuz. [SS IV.2.c)]

8. Diskriminazio positiboa deitutakoa zigor-arloko esparrura nahiz eta arlo judizialera eramanda zentsuragarria den diskriminazio negatibora darama. Esparru hauek berdintasun egoeretan dituzte



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

beraien abiapuntuak: ez da ezer gehitzen emakumearen babes judizialera, emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien babesetik gizonak baztertzeagatik. (SS IV. 3)

9.Erasotzailearen asmoan oinarritzen den emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptu bat ez da onargarria -zeinen menpe, legearen aplikazio guztia dagoen. (SS. V.1)

10.Konstituzionalki mehatxu eta bortxaketa arinak delitu izatera pasatzea soilik iraindua emakumea denean, kritikagarria da [(SS V. 2 d)]

11.Delitu horien oinarria bakarrik erasotzailea gizonezkoa dela izatea eta bere intenzionalitatea legean sumaturik, autore zigor zuzenbidera darama. [SS V. 2 d)

12.Areagotutako lesio mota emakumearen gutxiagotasun presuntzian oinarritzen da, arau hori adingabe, adindu edo elbarriei aplikatu gabe, guzti hauek etxeko indarkeriaren biktimak ere izaten daitezkeenean. [SS V.2 e)]

13.Positiboa da organo judizialen espezializazio handiago batera bideratzea, beti ere bere helburua etxeko indarkeriaren agerkari osoa ezagutzea denean. (SS V.3).

14.Emakumeentzat bakarrik izango litzatekeen epaitegi maila berri bat sortzeak ez du justifikaziorik eta honek erasotzailearen asmoan



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

eta biktimaren sexuan oinarritutako jurisdikzio berezi baten zorira darama. Organo judizialak arraza, ideologia eta sinismen ezberdintasunengatik sortu ezin badaitezke, sexua dela eta ere ezin daiteke egin (SS V.3)

15.Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak sortu baino lehen, iadanik existitzen direnen espezializazio funtzionala lortu beharra dago, hala nola Fiskaltza eta iada existitzen diren tresna prozesalak indartuz koordinazioa aprobetxatu. (SS V. 3 eta 6)

16.Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien sartzea zigor-arloko ordenaren barruan, ematen zaizkien kausa zibilak "kriminalizatzer" darama, hala nola manipulatuak izateko arriskua indartzera. Hau indarrean dagoen 27/2003 Legearekin antzematen bada, zentzudunagoa litzateke arrisku hori handituko lukeen sistema paralelo berri bat sortu aurretik, lege honen aplikazioa oraindik gehiago ebaluatzea. (SS V. 4)

17.Ez du zentzu prozesalik zigor-arloko ordenaren barruan dauden organo horiei publizitate iraingarriaren aurkako ekintza zibilei buruzko ezagutzaren eskumena ematea, aspektu hau, emakumearen aurkako indarkeritik kanpo. [SS V.4 h)]

18.Eskuduntza arauak ezin daitezke oinarritu biktimaren sexuan eta ezta erasotzailearen asmoan ere. Horrela izanik, zentzugabeko egoeretara heltzea posible litzateke, non egitate berdinean, subjektu berdinean, intentzionalitate horregatik, organo



## BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

ezberdinen eskumen izango litzatezkeen. Hau beti ere azkenean ikusiko litzateke eta ez ekintzen hasieran. (SS V.4)

19.Aurretik legeak zehaztutako epaile arrunta izateko eskubidea konprometitia geratzen da eskudun epailearen aukera emakumearen esku geratzen den momentutik, testuak eskaintzen dioen babes neurrietara jotzen duen edo ez kontuan izanik. [SS v.4.c ]

20.Judizio azkarrak eta babes ordena guardiako Instrukzioko Epaitegien esparruan ebatziak izateko aurreikusiak izan dira. Emakumeen aurka burutzen diren delituen parterik handiena epaitegi hauen eskumenekoak dira eta epai mota horien bitartez bideratzen dira eta ez hortaz Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien bitartez. Hau dela eta, lortu nahi zen espezializazioa zalantzan geratzen da. [SS v. 4. d)]

21.Testu informatura Babes Ordenako Ezarpenaren Jarraipen Batzordearen protokolo eta ekimen batzuk eramatea planteatu beharra dauka. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak eta Lan eta Gizarte Gaien Ministerioak, lege informatuan Behatoki berri bat eta dagoeneko existitzen denarekin gainjartzeko arriskua duena sortu baino lehen, 2002an sortutako Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako gaur egungo Behatokia mantendu beharra dauka. [SS V.4.g) eta VI]

**Eta jaso geratu dadin, aurrean dagoena bete eta sinatzen dut**



BOTERE JUDIZIALAREM KONTSEILU NAGUSIA

**Madrilen, bi mila eta lauko ekainak hogeita lauean.**